



HEZKUNTZA MARKO HIRUELEDUNAREN ONDORIOAK



Sakontze Egitasmoa
Maier Ugartemendia



0. AURKIBIDEA

1. Sarerra	3
1.1 Helburuak	3
1.2 Eskerrak	4
2. Euskal Herriko hezkuntza ereduak	5
2.1 Euskal Herriko hezkuntza ereduaren historia	5
2.2 Euskal Autonomia Erkideagoan A, B eta D ereduaren aukera	7
2.3 Hezkuntza elebiduneko A, B eta D ereduaren bilakaera	8
2.4 Hezkuntza elebidunarekiko jarrerak eta iritziak	12
3. Hezkuntza Marko Hirueleduna	15
3.1 Hezkuntza eleanitz proiektua	15
3.2 Hezkuntza Marko Hirueledunaren hasiera	16
3.3 Hezkuntza Marko Hirueledunaren ezaugarriak	18
3.4 Hezkuntza Marko Hirueledunarekiko iritziak	18
3.5 Hezkuntza hirueledunarekiko kritika eta proposamenak	21
3.6 Hezkuntza Marko Hirueleduna martxan jarri duten ikastetxeen bizipenak	24
3.7 Hezkuntza Marko Hirueledunak aurrera jarraituko du 2011-2012 ikasturtean	27
4. Ikasleen hizkuntza-maila	29
4.1 Ikasleen hizkuntza-maila aztertzeko egin izan diren azterketak	29
4.2 A, Beta D ereduak ikasleen hizkuntza-mailaren ebaluazioa	32
4.2.1 A, Beta D ereduak ikasleen hizkuntza-mailaren ebaluazioa Lehen Hezkuntzako 4. mailan	32
4.2.2 A, Beta D ereduak ikasleen hizkuntza-mailaren ebaluazioa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan	39
4.2.3 A, Beta D ereduak ikasleen hizkuntza-maila aztertu ondoren atera daitezkeen ondorioak	45
5. Ondorioak eta proposamenak	48
6. Bibliografia	51

1. SARRERA

1.1 Helburua

2010-2011 ikasturtean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak abian jarri zuen hezkuntza proiektua: Hezkuntza Marko Hirueleduna. Honek eskoletan euskara, gaztelera eta atzerriko hizkuntza bati (orain arte ingelesa eta frantsesa) astean 5-6 ordu eskaintzea eskatzen du. Hezkuntza proiektu berri honekin gaur egun ezagutzen ditugun A, B eta D ereduak desagertuko lirateke, eta guztiak ordezkatzeko lituzkeen eredu bat ezarriko litzateke, eredu eleanitza.

Proiektua aurkeztu zen momentutik gaia oso eztabaidatua izan da, eta 2010-2011 ikasturtean zehar zenbait ikastetxetan proba moduan ezarri den arren, Isabel Celaá Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak jada ohartarazi du marko hirueledunak “ez duela atzera bueltarik” (berria.info). Hezkuntza Sailburuak 2013. urtean EAEko 525 ikastetxeetan beste eredurik ez dela egongo adierazi berri du, maiatzean emandako prentsurreko batean, horren berri eman zuten Berria, Gara edota Diario Vasco egunkarietan, 2011ko maiatzaren 31ko egunkarietan (berria.info, gara.net, diariiovasco.com).

Esan bezala, gai honek hauts asko urratu ditu, eta egitasmoa aurkeztu orduko eta baita gaur egun ere, hainbat ikastetxe eta eragilek ezbaian jarri dute proiektuak arrakasta izateko aukera. Batez ere, ikasle horiek guztiz euskaldunduko ote diren zalantza dute batzuek, eta “eredu horiek euskarari hizkuntza gutxitua den heinean, kalte besterik ez diotela egiten” uste dute zenbait elkarte (berria.info, 2011/01/19). Askotan hezkuntza elebiduneko A eta B ereduak ikasleen euskalduntzea bermatzen ez dutela salatu izan denez, eta oraingo markoa askok B ereduarekin parekatzen dutenez, ondorengo galderei erantzutea zilegi dirudi: marko hirueledunak zer eragin izan ote dezake euskara bezalako hizkuntza gutxitu batengan? Benetan egokia ote da hezkuntza eredu hau EAE guztirako?

Galdera hauei eta hauekin loturiko beste zenbaiti erantzuteko ahalegina egingo da Sakontze Egitasmo honetan. Gauzak honela, hezkuntza edo marko hirueledunak euskararengan zein eragin izan ditzakeen aztertzea izango da nire helburua datozen orri hauetan.

Horretarako, Euskal Herriko hezkuntza ereduak ezagutuko ditugu, zenbait ikastetxeren bizipenak aztertuko ditugu, elkarte eta eragileen iritzia jasoko dugu, eta ikasleen hizkuntza gaitasunean ere arreta jarriko dugu, besteak beste.

1.2 Eskerrak

Hilabete hauetan zehar bildutako informazioaren berri eman aurretik, niri ezinbesteko laguntza eman didaten pertsona, ikastetxe eta erakundeei eskerrak eman nahi nizkieke. Informazio desberdin asko bildu behar izan dut, eta beraien laguntzarik gabe, ez nukeen lortuko.

Beraz, mila esker lehenik eta behin Lionel Jolyri, nire tutoreari, emandako laguntzagatik. Eskerrak baita ere Lasarteko Berritzeguneko Josune Erkiziari, Urnietako María ikastetxeari eta bereziki Leire Osesi, eta Laskorain Ikastolari eta bereziki Jone Urteagari. Guzti hauez gain, eskerrak eman behar dizkiet hilabete guzti hauetan nire inguruan egon diren, lagundu didaten eta jasan nauten inguruko guztiei.

Zenbait arazo direla eta, Sakontze Egitasmoa hasiera batean buruan nuen proiektutik pixka bat urrundu den arren, pertsona guzti hauei esker lanarekin aurrera jarraitzea lortu dut, eta lan hau pertsona guzti hauen laguntzaren emaitza da.

2. EUSKAL HERRIKO HEZKUNTZA EREDUAK

Gaur egun EAE osoan ezarriko den hezkuntza eredu bat ulertzeko, hau da, marko hirueleduna ezagutu ahal izateko, honek sortu dituen eztabaidak ulertzeko eta proposamenaren zergatia jakiteko, ezinbestekoa da lehenago Euskal Herrian ezagutu ditugun hezkuntza ereduen berri izatea, eta hauen nondik norakoei begiradatxo bat ematea.

Horregatik, jarraian historian zehar Euskal Herrian egon diren hezkuntza ereduak ezagutuko ditugu, eta gaur egunera arte egon den eta oraindik dagoen A, B eta D ereduen inguruko oinarritzko datu batzuk ezagutuko ditugu atal honetan.

2.1 Euskal Herriko hezkuntza ereduen historia

Euskal Herriko hezkuntza sistema asko aldatu da azken hiru hamarkadetan. Egoera soziolinguistikoaren aldaketak, hizkuntzarengan eta hizkuntzarekiko jarrerengan aldaketa garrantzitsua eragin dute. Honegatik guztiagatik, hezkuntza bera ere aldatu da, eta baita hezkuntzak euskararekiko izan duen jarrera ere.

Hezkuntza ele bakarrekoa zen, orain dela hogeita hamar urte, hemengo eskola-sistemetan ezarrita zegoen eredu. Gaztelaniaz ikasten ziren ikasgai guztiak, eta gaztelania hutsez alfabetatzen zituen eskola horrek bertako haur guztiak: bai etxetik erdaldun huts edo elebidun zirenak eta bai euskaldun hutsak ere. Haurrek beraien bizitzako lehen urteetan eskolan pasatzen zituzten ordu guztiak gazteleraz inguratuta igarotzen zituzten, eta horrek euskararen egoera benetan okertzea ekarri zuen. *Ahulduta iritsi zen euskara, hogeigarren mendearen bigarren erdialdera: eremuz aski urritua, erabilgune soziofuntzionalerik nabarmenki mugatua, aginte-esparrutik behin eta berriro baztertua, “etxe-auzo-herrixka” ingurumen primarioenera lotua sarri, beren hizkuntzan irakurtzeko eta idazteko gai ziren hiztun oso murriztua, idatzizko zereginerako eta jendaurreko hizkera-molde jaso, landu, bateraturik ia gabea eta, horren guztiaren ondorioz, erdararen ondoan jarduteko eta gizarte-giro berri-kaletartuan bere bizi-esparru propioa indar betean segurtatzeko eta bere biziesparru hori hurrengo belaunaldira bere osoan transmititu ahal izateko gero eta ezinagotua.* (Zalbide eta Izagirre, 2011: 12.or)

Euskarak hezkuntzan presentziarik ez izateak, beraz, XX. mendera oso ahulduta iristea ekarri zuen. Euskara belaunaldiz belaunaldi igarotzeko modu bakarra etxean ahoz-ahoz transmititzea zen, baina, hori ez zen nahikoa. Horrek ez baitzuen euskararen biziraupena ziurtatzen, etxetik kanpoko inguruneak ere beharrezkoak zituen. Eta, laguntzeko modu garrantzitsu bat euskara eskolan barneratzea izan zitekeen. *Hala ulertu izan dute euskaltzale gehienek, 1750etik honakoan. Halatsu ulertu eta eskatu du euskaldunjendeak ere, belaunez belaun eta aski era argian, amaitu berria den XX. mendean. Eta halatsu ikusi izan du arazoa bertako erdaldun askok ere: etxeko eta kaleko hizkuntzaz erdaldun diren bertako hiritar askok ere euskalduntze-xedea erantsi*

nahi izan dio bere seme-alaben eskolari, aski neurri ohargarrian erantsi ere, euskarak leku seinalea izango duen Euskal Herria berreskuratu nahirik. (Zalbide eta Izagirre, 2011: 12.or). Eta, indar eta gogo hauen erantzun gisa sortu ziren eskolak euskalduntzeko lehengo saiakerak ere. 1975etik bizitako gizarte giroak saio hauek indarra hartzeko balio izan zutelarik. Honela, askotan eskolari egotzi zaio euskara indarberritzeko eginbehar hori.

Gauzak honela, eskola munduak aldaketa handiak jasan ditu 1975etik gaur egun arte. Aldaketa horien atal nagusi bat, ez bakarra baina bai zentrala, hizkuntzen trataera izan da. Euskara-gaztelanien trataera, batez ere, eta horienaz gainera (azken urteotan bereziki) ingelesarena. Bilakaera hori aztertu zuen SIADECO elkarteak 1978an, Euskaltzaindiak eskatuta. Txosten hark Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa aztertu zituen. Lehenago (1969an), ikuspegi mugatuago batekin, antzeko azterlana egin zuen GAUR elkarteak. GAUREn eta bereziki SIADECOREn azterketetatik, euskal irakas-sistemaren egoera zehatza ezagutzeko datu objektibo ugari jaso ahal izan ziren, eta hauen bilketa bat egin dute Mikel Zalbide eta Santos Izagirrek Hizkuntza Plangintza graduondoko *Hezkuntza alorreko hizkuntza plangintza* ikasgairako. Bertan oinarrituta hemen ere ikerketa horretako ondorio interesgarrien laburpen bat egingo dugu.

Azterketa hauei esker gurasoek eta herritarrek euskarazko edo ele biko hezkuntzaren alde zuten jarrera ikusi ahal izan zen. *Euskara zokoratzeari zegokionez, esate baterako, honako datu hauek agertu ziren 1976-77 ikasturteari buruzko azterketan: Eskolaurre eta OHOKo herri-ikastetxeetako irakasle guztietatik %95ek baino gehiagok ez zekien euskaraz. Euskaraz zekiten irakasle apur haietariko hainbat, gainera, erretiroa hartzeko edadera iristeko puntuan zegoen. Ikastetxe pribatuetaiko egoera ez zen askoz hobea: haietariko apur batzuk bakarrik ekina zioten, berrikitan, euskara beren ikasketa-planetan sartzeari* Zalbide eta Izagirre, 2011: 13.or). Datu hauekin ikus daiteke euskara aspalditik baztertu izan dela eskoletan. Gerra ostean, 1937an euskararen jendaurreko erabilera debekatzera iritsi zenean, eskola publikoak eta pribatuak EAEko ikasleak erdal mundura eramateko asmoan, irakasle erdaldun elebakarrak prestatzeko diseinaturik zegoen eskola mundua. Egoera horretan salbuespen bakarrak ikastolak izan ziren. Nahiz eta, gerra garaiko Eusko Jaurlaritza suntsitu zenean ikastolak eta euskarazko ikastegi guztiak itxi egin ziren.

1960tik aurrera, ordea, indarrean zegoen legeari aurre eginez, hazkunde bizia izan zuten ikastolek: hamarkada batean Euskal Herriko, eta bereziki Gipuzkoako, ikastolek berpizkunde moduko bat izan zuten. Hortaz, euskara onartua (1960-1976) 60ko hamarkadako urteetan sortutako ikastolek, euskaraz irakasten zuten eskolak, Frankoren aurkako erresistentzia ezaugarri nabaria zuten. Klandestinitatean sortu ziren ikastolak. Baimenik gabe euskara erabiltzen eta euskal kultura lantzen zuten, libururik gabe eta gurasoen babesa besterik ez zuten; baina, bazuten indarra ematen zioten beste zerbait: beraien arbasoen hizkuntza eta kultura defendatzeko zuten konpromisoa.

Denboraldi honetan bi gertaera garrantzitsu jazo ziren: Frankoren heriotzaren ondoren Espainiako Konstituzioaren aldarrikapena eta Espainia aldeko Euskal Herriko politika garatzeko alderdi politiko demokratikoek hartu zuten ardura. Are gehiago, eskola liburuak Euskal Herriko hizkuntza, kultura, historia, geografia eta abarri buruzko eduki kurrikularrak barneratzen hasi ziren. Aipatu beharrekoa da garai honetan onartu zen Autonomia Estatutua (1979), eta baita 1983an onartutako dekretua ere, EAEko haurrek euskara derrigorrezko gaia izango zutela arautzen zuena. (Etxeberria, 1999: 1.go orria)

Garai horretan diseinatu ziren, urteen buruan hain hedadura zabala eskuratu duten orduko A, B, C eta D ereduak; gerora hirura mugatuak izan direnak. Euskaltzaindiak ere elkar hartuz, bestalde, *Euskararen Irakasle Diploma* sortu zuen Eusko Kontseilu nagusiko Hezkuntza Sailean. *Eskoletan euskara irakasteko beharrezko hizkuntza-gaitasuna eta irakas-trebetasuna bere oinarritzko zertzeladetan finkatzea lortu zen horrela.*

Hala ere guztia ez zen hain erraza izan, bitarteko materialak falta ziren, eskoletan euskaraz edo euskara ikasteko ikasmaterial gutxi baitzegoen. Antolamendurako baliabiderik ez zegoen ia, eta behar horiei guztiei erantzuteko diru iturriak ere hutsaren hurrengoak ziren. Gizarteko arlo desberdinetan ere euskararen koofizialtasuna lau haizetara aldarrikatzen zuten une hartan. Eskaintza nahiko juxtua zen arren, eskaria oso nabarmena izan zen. EAEko biztanleen %25 bakarrik izanik euskalduna, beren seme-alabentzat irakaskuntza elebiduna nahi zuten gurasoak askoz ere gehiago ziren.

2.2 Euskal Autonomia Erkidegoan A, B eta D ereduen aukera

Gizartearen eskaerari erantzunez, neurriak hartzen eta baliabideak eskuratzen joatea izan da, hein handi batean, Eusko Jaurlaritzak 1980tik aurrera ele biko hezkuntzaren alorrean eraman duen bidea. Hala egin du herri-ikastetxeetan, eta halatsu ikastegi pribatuetan, horretarako beharrezkoak ziren laguntzak emanaz. Hezkuntza-politika horrek Euskal Herriko Autonomia Estatutua du marko-arau gidari. 1978ko Espainiako Konstituzioak bere 3. artikuluan, gaztelaniaz aparteko beste hizkuntzei bere lurraldeetan aitortzen dien ofizialtasunean oinarrituz, Euskal Autonomia Estatutuak zera dio bere seigarren artikuluan:

- *Euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza, gaztelaniarekin batean hizkuntza ofiziala izango da Euskadin. Bertako biztanle guztiek dute hizkuntza bata zein bestea jakin eta erabiltzeko eskubidea.*
- *Autonomia Erkidegoaren amankomuneko Erakundeek, Euskadiren leku batetik besterako desberdintasun soziolinguistikoak kontuan izanik, hizkuntza bien erabilera garantizatuko dute, beren izaera ofiziala arautuz eta beren ezaguera ziurtatzeko behar diren neurri guztiak hartuz eta bideratuz.* (Zalbide eta Izagirre, 2011: 15. or)

1979ko Euskararen Erabilera Normaltzeko legeak mugarri garrantzitsua ezarri zuen: ikasle orok bere ikasketak euskaraz zein gaztelaniaz egiteko eskubidea duela aitortzen du, batetik; eta, bestetik, beharrezko neurriak hartzera behartzen du Administrazioa, bere obligaziozko ikasketa-aldia amaitzerakoan ikasle orok hizkuntza ofizial bien behar adinako ezaguera praktikoa izan dezan.

Antzekoa dio otsailaren 19ko Euskal Eskola Publikoaren 1/93 Legeak, hizkuntza kontuez ari delarik: irakasteredu elebidunei buruz ematen dituen azalpenen artean, konkretuki, honela dio: *‘Euskara eta gaztelania nahitaez sartuko dira euskal eskola publikoan gara daitezen irakaskuntza-programetan, bi hizkuntzen ahozko zein idatzizko ulermena eta adierazmena benetakoa izan eta gutxienez ohizko harremanetarako eta*

erabilerako hizkuntza gisa erabili ahal izan daitezten. Hortik aurrera etorri diren legeek, dekretuek eta aginduek eguneratu, zehaztu edo garatu egin dute oinarritzko filosofia hori: ez dute aldatu, ordea. Konstituzioa, Autonomia Estatutua eta Euskararen Erabilera Normaltzeko Legea dira, beraz, egungo lege-markoak hezkuntza elebiduna hezur-mamitzeko ezarriak dituen ildo nagusiak.

Uztailaren 11ko 138/1983 Dekretua eta abuztuaren 1eko Agindua jakinaraz zituzten Eusko Jaurlaritzak eta Hezkuntza Sailak, hurrenez hurren. Labur bilduz, Dekretu eta Agindu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko irakas-sistemarentzat ondoko irizpideotan oinarrituriko jardun-markoa ezarri zuten:

- a) bai euskara eta bai gaztelania ikastetxe-mota guztietan derrigorrez irakatsi beharreko irakasgaiak dira, hasi Eskolaurrean (EA) eta OHOn barrena, Batxilergo (BBB), Lanbide-Heziketa (LH) eta Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturteraino (UBI).*
- b) hizkuntza ofizial bion irakaskuntza hiru eredu hauen bidez egin daiteke: A, B eta D. Irakasteredu elebidunak esaten zaie hauei, hizkuntza ofizial bietan oinarritzen direnez beti eta nonahi.*
- c) Eredu bakoitzak begiz joak dituen helburuen, ikasleei eskuratu nahi dien euskara-ezaguerazko gaitasunaren eta beraien artean bultzatu nahi lukeen erabilera-mailaren arabera, ikasleak A, B eta D irakasteredu elebidunetan banatuko dira. (Zalbide eta Izagirre, 2011: 16.or)*

Hiru eredu hauek psikologikoki eta pedagogikoki arrazoituak zeuden, eta oinarrian edozein ikasketa hasteko, beste hizkuntzena barne, ama hizkuntza erabiliz hasi behar deneko ustea zegoen. Era honetan, D ereduak jatorriz euskaldun ziren haurrentzako zela egokiena uste zen; B ereduak bi hizkuntzen ezagupena zuten haurrentzako; eta A ereduak, azkenik, euskararen ezagupen oso txikia edo batere ez zuten haurrentzako. Gizarteak EAerako ezarritako zegoen hezkuntza elebidunaren ereduak aldatzera beharra sortu zuela uste du Feliz Etxeberria, EHUKo Hezkuntza Zientzien Katedradunak (Etxeberria, 1999). Joera honek gurasoek hezkuntza sisteman duten konfiantza, eta euskaraz ikasteko zegoen motibazio altua erakusten zuela uste du.

Orain arte ikusi ditugun datuen arabera, pentsa dezakegu euskara normalkuntzaren bidetik abiatu zela XX. mendean, bereziki EAEko lurraldeetan. Baina, Sabin Oregi, Informazio eta Komunikazio Zientzien Doktoreak, 1999. urteko Hik Hasi aldizkariaren, 38. alean, Bordeleko unibertsitatean egin berri zen doktorego tesi baten berri ematen du Oregi, 1999: 2. or). Bertan oraindik euskal gizartearen erreferentzia taldea euskaldun zaharra alfabetatu gabea dela erakusten du. Eta hizkuntza aloktonoek hizkuntza egoera normaldua dutela ikus omen daiteke, bertako hizkuntza “ez normaldua” dagoen bitartean.

2.3 Hezkuntza elebiduneko A, B eta D ereduaren bilakaera

Hezkuntzan A, B eta D ereduak ezarri zirenetik, hiru ereduak bilakaera ezberdina jasan dute. Euskara nagusi duen D ereduak, pausoka pausoka gorakada handia izan duela esan genezake. Hazkunde hau lortzeko, ordea, lan handia egin behar izan dute eragile askok:

irakasle-gai euskaldunak sortuz (Irakasle Eskolak horretarako egokituz), lehendik lanean ari ziren irakasleak euskaldunduz edo alfabetatuz, eta berriak kontratatutakoan euskaldunak izatea kontuan hartuz. Horrez gain, ikasmaterialak sortu behar izan dira, lehen esan bezala ez zegoelako euskarazko materialik; honela, bereziki euskara ikasi ahal izateko, eta baita Lehen eta Bigarren Hezkuntzako gaiak euskaraz ikasi ahal izateko. Hiritarren, irakasleen eta ikasleen euskara-maila neurtzeko agiriak ere sortu eta gestionatu behar izan ziren. Herritar guztientzat EGA sortu zen eta irakasleentzat bereziki Hizkuntza Eskakizunak sortu ziren. Azkenik euskararen erabilera normalizatzeko ekimenak, programak eta proiektuak bideratu behar izan dira urte askoan.


EAEen hezkuntza ereduak azken urteetan jasan dituzten aldaketarik handiena bi izan dira: ikasle kopurua eta bestetik ereduaren bilakaera.

EAEko jaiotze-datuen esparruan, azken hogeita hamar urteotan aldaketa nabarmenak izan dira, eta aldaketa horiek euskalduntze-politikan eragin zuzena eta zeharbidezkoa izan dute. Eust ateko datuen arabera, 1970-1976 urte berrogei mila haur inguru jaiotzen ziren urtero EAEen; hori nahiko kopurua altua da gaur egungo jaiotze-datuekin alderatuta. 1977tik 1995 ingurura arte jaiotza-kopuru horiek etengabeko gainbehera izan zuten. Jaitsierarik biziena 1978-88 hamarkadan gertatu zelarik. Jaiotze-datu baxuenetan 16.000tik behera haur jaio dira. Hamarkada bat lehenago jaiotzen ziren haurren erdia baino gutxiago. 1995 ingurutik aurrera jaitsiera horrek aldaketa bat izan zuen eta, neurri apalean bazen ere, indarberritze edo buru-jasotze moduko bat gertatu zen. Azken datuen arabera, hogeit mila haur inguru jaiotzen dira azken urteetan, EAEen. Hasierako datuen erdia da gutxi gora behera, baina, orain dela hamarkada bat baino zertxobait gehiago ere bada. Beraz, kontutan hartzeko moduko datua da 1976tik 1996ra bitartean jaiotza-kopurua %61 jaitsi zela. Eta, nahiz eta azken hamarkada honetan igoera txiki bat izan den, hau ulertzeko badira zenbait arrazoi soziologiko. Hau da, European oro har eta Espainian bereziki kanpoko populazioen immigrazioaz gertatzen ari diren mugimendu bortitzak kontuan izan behar dira datu hauek irakurtzerakoan.

Ikasle kopuruaz gain, hezkuntza ereduaren aldaketa nabarmena izan duen beste puntua eredu aukeraketarena izan da. Hasiera batean. Ikastetxe gehienetan euskara presentziari ez zuen X eredu bat aurkitzen zen nagusiki. Hori gainditzen hastearekin batera, hezkuntza elebiduna izan da eta da azken urte hauetan EAEko eskoletako sistema. Eskola elebidunetan A, B eta D ereduak izan arren, gurasoek arrazoi ezberdinengatik, beraien aukeraketa egin dute, eta eredu batek besteek baino eboluzio handiagoa jasan du. Oro har, eta urterik urteko perspektiban, Eskolaurreko (gaur egun Haur Hezkuntzako) lehen ikasmailan haurrak sartu dituzten guraso-tutoreek gero eta proportzio handiagoan aukeratu dituzte B eta, bereziki, D ereduak.

Eredu hauek jasan duten eboluzioa edo bilakaera ikusteko, Zalbide eta Izagirreraren *Hezkuntza-alorreko hizkuntza plangintzara* jo dut, bertan bilakaera hau grafikoki ikusteko aukera dagoelako.

Lehenengo irudi honetan portzentajeen arabera ereduen bilakaera ikus daiteke:




1.go irudia: EAEko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakastereduen mende laurdeneko bilakaera.

Grafiko hau egiteko Lehen Hezkuntzako (Haur Hezkuntza eta Lehen Mailako Hezkuntza) eta Bigarren Hezkuntzako (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketako Prestakuntza Zikloa) datuak hartu dira kontuan. Gainera, herri ikastetxeetako eta ikastetxe pribatuetako datuen bilketa ere egin da.

Grafikoak eman dituen datuei begiratuz gero, berriz, argi eta garbi ikus daiteke behin eta berriz aipatutako bilakaera hori. Alde batetik, lehen aipatutako X ereduak guztiz desagertu da. Bestetik, benetan deigarria da laurogeigarren hamarkada hasieran nagusi zen A ereduak, hau da, erdara oinarri duena, izugarri jaitsi da; beheranzko joera etengabea izan du. Aldiz, B ereduak hasiera batean oso leku txikia zuen arren, pixkanaka zabaltzen joan da, eta denborarekin mantentzea lortu du. Hala ere, benetan aldaketa eta gorakada izugarria izan duena D ereduak izan da. EAEko gurasoek euskal ereduarekiko apustua egin dute, eta hasieran ia lekurik ez zuen eta gaur egun eredu nagusia bilakatu da.

Bilakaera orokorrari begiratzen badiogu, esan genezake EAEko ikastetxeetan ikasle kopuruak behera egin duela, (nahiz eta azken urteetan gorakada txiki bat izan), eta ikasle horien gurasoek D ereduak aukeratu dutela nagusiki. Guzti honek bere zergatia edo zergatiak izango ditu. Eta, aurrerago hori azaltzen ere saiatuko naiz; baina, gutxienez argi dago gurasoen gehiengo batek honegatik edo hargatik D ereduak aukeratu duela bere seme-alabentzat.

Orain gure egitekoa ez den arren, eta xehetasunetan sartuko ez naizen arren, aipatutako dokumentuan (Zalbide eta Izagirre, 2011) gaur egun ereduak lurraldeka eta ehuneko portzentajeetan nola banatuta dauden ikus daiteke. Esan bezala, honi arreta berezirik jarriko ez diogun arren, interesa izan dezakeenak, jarraian ikus dezake:



2. irudia: ereduak lurraldeka, eta ehunekotan.

Bigarren irudian ikus daitekeen bezala, Lanbide Heziketa salbuespen bat den arren, Araban izan ezik, beste bi probintzietan D eredu delako eredu nagusia, batez ere Gipuzkoan, presentzia handia duelarik. Hala ere, Araban eta baita beste lurraldeetan ere ikus daiteke Haur Hezkuntzan dauden haur gehienak D ereduaren daudela. Horrek esan nahi du, gaur egun gero eta guraso gehiagok egiten dutela D ereduarekiko aukera.

Datu hauek kontutan hartzea beharrezkoa iruditzen zait, hasteko ezartzen ari den Hezkuntza Marko Hirueleduna zertan ezberdintzen den hobeto ulertzeko. Bestetik, bai hezkuntza elebidunaren inguruan izan diren eztabaidak ere ulertu ahal izateko. Eta, azkenik, marko hirueledunak ikasleen euskalduntzea ziurtatzen ote duen eztabaidaren inguruan, zenbait datu eta ezaugarri ezagutzea beharrezkoa delako.

Honenbestez, behin hezkuntza elebiduna ezagututa, orain, marko hirueledunaren ezaugarriak aztertuko ditut. Honela, proiektuaren helburuan zeresan handia izan dezakeen ikasleen hizkuntza mailen inguruko ikerketetara joko dugu.

2.4 Hezkuntza elebidunarekiko jarrerak eta iritziak

Hezkuntza hirueleduna martxan jarri aurretik ere, eztabaidagai izan da hezkuntza elebidunak. Sarri hezkuntza elebidunak ikasleak euskalduntzeko ez zuela balio esan izan da, eta A eta B ereduak oso kritikatuak izan dira, ikasleen hizkuntza maila ebaluatutakoan ez dutelako behar bezalako maila izan. Hizkuntza mailari buruz, zehatzago eta sakonago aurrerago hitz egingo dudan arren, hemen hezkuntza elebidunari egin izan zaizkion zenbait kritika edo ereduarekiko hartutako zenbait jarrera ezagutzeko aprobeztatuko dut.

Lore Erriondo, Xabier Isasi, Mari Jose Azurmendi eta Xabier Mendigurenek, 2005ean, Hik Hasiko 99. alean, *Hizkuntza ereduaren porrota frogatu da* artikuluan martxan zeuden hizkuntza ereduarekiko hausnarketa garrantzitsu bat egin zuten. Ikasleak eskolan euskalduntzen zirenen ustea, ez zela guztiz egia esaten zuten. Eskolak ez zuela euskalduntze hori bermatzen esaten zuten. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzen duten 16 urteko gazteek ez zutela edo dutela euskara mailarik lortzen baieztatzen zuten; eta, gainera hori horrela zela zioten EAEn, Nafarroan eta Iparraldean.

Artikulu honen arabera EAEn “hizkuntza ereduaren politikak ez du helburua lortzeko emaitzarik eman, hau da, 16 urteko gazteek ez dituzte bi hizkuntza ofizialak menperatzen”. Bertan 2004an egindako ebaluazio batzuen datuak ere ematen dituzte, esaten dutena egiaztatzeko: *DBH 4. mailako 1.191 ikasleri (B ereduko 447 eta Dko 744) ALTE (Association of Language Testers in Europe) elkartereko B2 azterketa egin zitzaien. B ereduko % 33k soilik gainditu zuen; eta D ereduko % 68k. Horrek esan nahi du B ereduko bi herenek ez dutela euskara menperatzen, eta D ereduko heren batek ere ez* (Erriondo, Lore; Isasi, Xabier; Azurmendi, Mari-Jose; Mendiguren Bereziartu, Xabier

2005: 1.go or). Datu hauek beste behin ere hezkuntzaren eta eleaniztasunaren balioa zalantzan jartzen dute, euskarari eta euskalduntzeri dagokionean behintzat.

Ebaluazioa egin aurretik, B2 mailako proba (ingeleseko Fist Certificate azterketaren parekoa da, EGA baino baxuagoa) hiru ikastetxetan egin zela diote, haietako bi A eredukoak, eta eredu horretako ikasle bakar batek ere ez zuen gainditu. Honek, erakutsiko liguke, beraz, orokorrean A ereduaren emaitzak ez direla hain onak. Ez euskararekiko soilik, baita ingelesarekiko ere.

Horren erakutsiko luke DBHko lau mailatan ikasten ari diren ikasleetako inork ez lukeela gaindituko B2 azterketa. B ereduan ikasleetatik % 67,4k ere ez luke gaindituko. D ereduekoei dagokienez, ikasleetatik % 31,99 geldituko lirake azterketa gainditu gabe.

Gauzak honela, beraien ustez *garbi dago 1983. urtean dekretuz ezarri zen hizkuntz ereduen sistemak gaur egun ez duela balio* (Erriondo & beste, 2005: 1.go or). Beraien ustez, sistema zaharkituta zegoen, eta egoera aldatzearekin batera sistema aldatu beharko litzatekeela baieztatzen zuten.

Artikulu honetan Nafarroaz eta Iparraldeaz ere hitz egiten dute, baina kasu honetan hezkuntza hirueleduna EAEn ezarri denez, eta nik hori dudanez azterbide, EAEko datuei buruz jardungo naiz. Hala ere, bai Nafarroan eta baita Iparraldean ere argi geratu zen eskolan jasotako euskara maila ez zela izan beharko luketenera iristen.

Ikusi bezala, sarri kritikatu izan da hezkuntza elebidunean ez direla ikasleak euskalduntzen, eta aldiz, presentzia handiegia ematen zaiela erdare. Gai hau zabalago languko dut ikasleen hizkuntza maila aztertzerakoan, baina honakoa zertzelada bat izan da, hezkuntza elebidunaren inguruan sortutako eztabaidak ulertzen hasteko.

Hala ere, guztiak ez dira kritikak soilak, eta bada proposamenak luzatu izan ditueneki ere. Adibidez, Iñaki Lasa Kontseiluko Ildo Politiko-Instituzionaleko arduradunak azaldu zuen hizkuntza eskubideak gizartearen arlo guztietan eta sistematikoki urratzen direla. "Horregatik, hizkuntz politika desagoki horren zamarekin ezinbestean behar dugu politika berri bat" (Erriondo & beste, 2005: 2.or).

Zenbaitek eredu bakar baten aldeko apostua egiteko proposatu izan du, "D eredu indartu eta beste biak, A eta B, desagertu. Horrez gain, gure ikastetxeen curriculum, metodologia, baliabideak berraztertu egin beharko dira" (Erriondo & beste, 2005: 2.or). Irakasleak dira eredu hauek hobeen ezagutzen dituztenak, eta eurek ere zenbait proposamen egin izan ohi dituzte: "irakasleok ere badugu zer berri hitzuntzen irakaskuntza alorrean. Ikuspegi formalista eta gramatikala mugatuz, orientabide komunikatiboa eta integratzailea landu beharra dago. Hizkuntzari zor zaion garrantzia emanez, denok hizkuntza irakasleak garela ohartuz". Badirudi, agian, ikasleak guztiz ez euskalduntzearen arrazoia ez dela ereduena soilik, beste hainbat faktorek ere eragin dezakete, prozesu hori benetan bete dadila bermatzen. Hala ere, horretarako "administrazioaren babesa eta laguntza beharrezkoa dela" ere adierazi izan dute.

Irakaslegoarekin jarraituz, irakasle elebidunak beharrezkoak zirela esan izan da, eta horretarako beharrezkotzat jo izan dute "Euskal Herriko Irakasle Eskoletan erdal adarrak desagertzea", ez baitute zentzukoa ikusi irakasle ez diren edo ziren irakasleak

hezitzen jarraitzeak. Hezkuntzaren didaktika egoki bat izateak, eredu batekoa izan ala bestekoa izan hizkuntza hori hobeto menderatzea ekar dezake. Ezinbesteko da irakaslego egokia heztea. Itziar Idiazabal EHUKo Euskal Filologiako irakasle katedradunaren iritziz, “irakasleek gehiago parte hartu beharko lukete subjektu diren hainbat ikerketetan eta ikasmaterialgintzan. Eta unibertsitatean leku gehiago egin beharko litzaioke hizkuntzaren didaktikari” (Erriondo & beste, 2005: 2.or). Jarrera bera hartu behar ote da hezkuntza hirueledunean irakasle diren edo izango direnekin? Gaur egun irakasle hirueledunak prestatu behar al ditugu? Benetan euskarak dituen behar horiek asetzen jakingo al dute hezkuntza hirueleduneko irakasleek?

LAB sindikatuak ere bere garaian A eta B ereduak desagertzeko eskatu zuen: “Hizkuntza murgiltze eredu bakarra sortu behar da, D eredutik abiatuz”. ELAk “irakasleen formazioan sakontzea eta etor daitezkeen aldaketetarako irakasleak prestatzea” proposatu izan du. Eta EILASek, “hezkuntza Sailari beharrezko baliabideak jartzeko” eskatu izan dio Erriondo & beste, 2005: 2.or).

Tasio Erkizia irakaslearen iritziz, "denbora bukatzen ari zaigu. Belaunaldi berri bat ezin dugu porrotera eraman" (Erriondo & beste, 2005: 3.or). Hori dela eta, berak bost berrikuntza ildo proposatzen ditu: euskararen normalizaziorako plangintza orokorra egitea, gizarte osoan; murgiltze ereduaren bideari ekitea; euskara eta euskal kultura uztartzea; ahozko erabilera gehitzea; eta administrazioak eta herri eragileak elkarlanean aritzea.

Idiazabalek ez du uste konponbiderako lehen neurria A eta B ereduak kentzea denik. "Ez al gara oraindik ohartu, hizkuntza eta eskola kontuetan, beste gauzetan bezala, gutxi balio duela derrigortasunaren eta denak berdinen legeak? EAEn, eta zorionez Nafarroan ere bai, B eta D ereduak oraindik gora egiten ari dira. Badirudi euskara gehiago nahi dutela gurasoek. Eskaera hori zertan datzan sakon aztertzea eta behar bezalako erantzuna ematen den aztertzea askoz aberasgarriagoa dela iruditzen zait berdintasunaz eta derrigortasunaz mintzatea baino".

Ikasleen ebaluazioen emaitzak ikusitakoan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak hainbat neurri jarri zituen abian. Batetik, irakasleen euskara maila hobetzeko ikastaroak antolatu zituen. Bestetik, etapa bakoitzaren amaieran lortu beharreko euskara maila zehaztu zuen, Haur Hezkuntzatik DBHra. Horrez gain, ebaluazioak egiten jarraitu izan da, emaitzen eboluzioa ikusteko. Eboluzio eta emaitza horiei buruz hitz egingo dut beranduago.

3. HEZKUNTZA MARKO HIRUELEDUNA

Hezkuntza Marko Hirueledunak euskara bezalako hizkuntza gutxitu batean izan dezakeen eragina aztertu ahal izateko, lehenik eta behin zer den eta zer funtzionamendu duen ezagutu beharko dugu. Horretarako, 2010. urtean proiektua nola azaldu zen erakutsiko da, ikastetxeek izandako jarrerak aztertuko dira, ikastetxeen bizipenak ezagutuko dira eta ereduarekiko zenbait jarrera ere bilduko dira.

3.1 Hezkuntza eleanitzaren proiektua

Hezkuntza Marko Hirueleduna 2010-2011 ikasturtean martxan jarri den arren, lehenagotik abian zen hezkuntza eleanitz baten proiektua. Ikastolen Elkartek urte mordoak daramatza euskara oinarri duen proiektu eleanitz bat garatzen, esate baterako Tolosako Laskorain Ikastolak beraien marko propioko eleanitz proiektua duela hogeitau urte jarri zuen martxan. Proiektu eleanitz horretako bereizgarria ingelesaren irakaskuntza goiztiarrarekin (4 urterekin) hastean datza.

Bada 2006. urtean Tontxu Campos, garai horretan EAEko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua zenak, EAEko ikastetxe publikoetan eredu berritzailea eta eleanitza martxan jartzea proposatu zuen. Ikus daitekeen bezala, hezkuntza hirueledunarena ez da pasa den urtean hasitako zerbait, askoz lehenagotik bide bera ez bazen ere, zerikusirik baduen bide bat zabaltzen hasia zen.

Gauzak honela, gaur egun abian jarri den Hezkuntza Marko Hirueledunarekin bezala, A, B eta D eredu ordez eredu bakarra eta malgua ikastetxe guztietan ezartzea zen asmoa. Euskara izango litzatekeen marko berriaren ikas-irakaskuntzaren hizkuntza nagusia. Gaztelania ere ikas hizkuntzat hartuko zitekeen. Honela, eredu honen helburua “hezkuntza prozesua amaitzean herritarrek hizkuntza ofizial bietan ezagupen maila nahikoa izatea” zen, “hizkuntza batean zein bestean komunika daitezen”.

Eredu eleanitzera jauzi egin eta “atzerriko hizkuntza batean edo bitan komunikatzeko oinarritzko ezagupena izatea” ere helburutzat ziren. Gaur egungo markoak, berriz, “ingelese aktibatzea” du atzerriko hizkuntza honekiko helburua.

Ordura arte egin ez zen bezala, helburu horiek denak neurtzeko asmoa azaldu zuen Camposek. Europako Erreferentzia hartuko zen erreferentzia bezala: euskara eta gaztelanian B1 maila lortu beharko zuten ikasleek Lehen Hezkuntza bukatutakoan, eta

B2 maila DBH bukatutakoan. Ingelesa edo frantsesean, aldiz, B1 maila DBHren amaieran. Maila horiek lortzen ziren edo ez ikusteko ebaluazioak egingo ziren.

Ikastetxe bakoitzak bere eredua garatu ahal izango zukeen, tokian tokiko egoera soziolinguistikoa kontuan hartuz gaztelaniari garrantzi handiagoa edo txikiagoa emanez. Ikastetxe bakoitzak diseinatuko zukeen bere hizkuntz proiektua markoak zehazten zituen helburuak lortzeko. Alde horretatik, autonomia izango zuten, baina erdietsi beharreko helburuak eta markoa mugari izanda. Aurrerago ikusi ahal izango den bezala, hezkuntza proiektu eleanitz hau, gaur egun martxan dagoen hezkuntza hirueledunaren oinarria da. Hainbat puntutan oinarri eta ezaugarri berberak dituzte. Zenbait gauza bakarrik aldatzen dira. Hezkuntza marko hau Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatik aurrera jarri nahi zuen martxan Camposek, 2008-09 ikasturtean hasita. Eta horrela, 10 urteren buruan marko berria ezarrita egotea espero zuen.

Proposamena, oro har, hasiera batean alderdi politikoei eta hezkuntza eragileek begi onez ikusi zuten. Hemendik aurrera, alderdi politikoen arteko eztabaida hasiko da. PPK ez beste alderdi denek A, B eta D ereduak “ikasleek beharrezko euskara maila lortzea” bermatzen ez zutela ohartarazi zuten eta, “horri buelta eman nahian” egin zuen bere proposamena Camposek, Gasteizen.

Hala ere, proposamen honek ere zalantza asko sortu zituen. Batetik euskararentzat zein gaztelaniarentzat proposatzen zen B2 maila, batzuentzat gehiegi zen, eta besteentzat maila hori lortu beharrekoa zen; beste zenbaitek hori baino altuagoa ere eskatzen zuten. Ikastetxeen autonomia eta malgutasunari zegokion gaia ere ez zen denak ados jartzen zituen zerbait, askeegia izan zitekeen ala ez eztabaidatzen zen. Ebaluazioaren inguruan ere aldekoak zein kontrakoak zeuden.

Tontxu Camposek proposamena aurkeztu zuenean PP izan zen proposamenaren guztiz kontra hitz egin zuen bakarra; PSE-EEK, baztertu gabe, errezelo ugari adierazi zituen; eta gainerako guztiek, ñabardurak ñabardura, abiapuntu egokia izan zitekeela onartu zuten. Hezkuntzako eta politikako ordezkari guzti-guztiak zeuden edo daude eredu, sistema edo marko bakar, malgu eta eleanitz baten alde. Baina, alde handia zegoen hezkuntzako edo politikako eragile batzuen eta besteen eredu bakar, malgu eta eleanitzaren artean. Azkenean, proiektu hau atzera bota zuten Legebiltzarrean.

Hemen aipatutako hau ez da atzera bota zen proiektu eleanitz bakarra, baina, oinarri ezberdineko proiektu eleanitz guztiak Legebiltzarrerara iritsi ohi izan direnean, arrazoi batengatik edo bestearengatik, beti atzera bota izan dira.

3.2 Hezkuntza Marko Hirueledunaren hasiera

2010. urteko martxoan aurkeztu zuen Isabel Celaá, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak, 2010-2011 ikasturtean proba moduan abian jarriko zen Hizkuntza Marko Hirueleduna. Jaurlaritzak proba moduan gaztelera, euskara eta atzerriko hizkuntza bat (nagusiki ingelesa, baina, batean frantsesa ere erabili dute 2010-2011 ikasturtean) ardatz izango dituen hezkuntza egitasmo bat martxan jarriko zutela adierazi

zuen orduan. Honela, Hezkuntza Sailak hiru eleko sistemaren bitartez, lehenago aipatutako A, B eta D ereduetan oinarritutako hezkuntza ordezkatu nahi dituelarik. Marko hirueledunak “ez duela atzera bueltarik” adierazi berri duen arren, hasiera batean hiru urteko proba epea ezarri zuen sailburuak, orduan ere behin betiko proposamena” aurkeztu artean izango zela esan zuen arren (berria.info: 2010/03/04 eta 2011/05/31).

40 ikastetxetan hasi zuen proba Jaurkitzak, horietatik 25 publikoak eta 15 itunpekoak. 25 publiko horien artean 13 Bizkaikoak ziren, 8 Gipuzkoakoak eta 4 Arabakoak. Itunpekoei dagokienez, berriz, 8 Bizkaikoak, 5 Gipuzkoakoak eta 2 Arabakoak. Ikastetxe hauek sailburuaren arabera “2010. urtean egindako deialdian hautatutakoak” izan ziren. Bertan Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailako ikasleekin aritu dira lanean 2010-2011 ikasturte honetan.

2011-2012 ikasturtean Hezkuntza Marko Hirueledunaren proiektuan parte hartu behar duten gurasoei zuzendutako gutun bat idatzi du Isabel Celaá, Hezkuntza sailburuak, eta bertan proiektu honen helburuak zeintzuk diren adierazten du, hiru zehazten dituelarik: euskara sustatzea, elebitasuna finkatzea eta ingelesa aktibatzea.

Era berean, hizkuntzak “irakasgaiak izateaz gain irakasbideak” izango direla zehaztu zuen sailburuak, 2010. urtean egindako Hezkuntza Batzordean. Honekin adierazi nahi zuen euskarak, gaztelarak eta ingelesak (kasu batean, frantsesak) irakasgaiak izaten jarraituko zutela, baina, beste irakasgai batzuk hizkuntza horietan eman direla eta emango direla. Lehen Hezkuntzan, gutxienez asteen bost orduz erabiliko dute hizkuntza bakoitza irakasgai batzuetan, eta sei orduz DBHn. “Ordu horiek bete beharreko gutxienekoak dira; ikastetxeek zehaztuko dute gero zein hizkuntzari emango dioten ordu gehiago, Hezkuntza Sailaren oniritziarekin”.

Horren adibide bezala, Gipuzkoako itunpeko bi ikastetxeetan hartutako erabaki ezberdinak ditugu. Batetik, Urnietako Maria ikastetxe erlijiosoan euskarak beste hizkuntzek baino presentzia “gehiago” duela diote, eta beraien ikastetxean aurrera eramanez ereduaren bereizgarri bezala “4. eta 5. mailan hizkuntza bakoitzean mintzamenerako ordu bat” erabiltzea da, “non 2 irakasle dauden taldea zabaltzeko edo hedadura handiagoa hartzeko”. Tolosako Laskorain Ikastolan ere “euskara da hizkuntza ardatz nagusia”, eta orduetako dagokienez dagokienez “euskarak % 58tik-%100era orduko presentzia du, maila/ziklo/etaparen arabera; gaztelarak berriz %0tik-%13rako presentzia du, maila/ziklo/etaparen arabera; eta ingelesak: %0tik- %30erako presentzia du, maila/ziklo/etaparen arabera.”

Bi ikastetxeetan euskarak presentzia handiagoa duen arren, marko hirueledunak eskaintzen duen malgutasunari esker, ikastetxe bakoitzak bere behar edo iritzien arabera molda dezake ordutegia; betiere gutxieneko orduak beteta. Horregatik, ikastetxe bakoitzak zehazten du zenbat ordu eskainiko dizkion hizkuntza bakoitzari eta zertarako (edo zer ikasgaitarako) erabiliko dituzten.

Ekimenak “izaera esperimentalak, borondatezkoa eta malgua” izango zuela adierazi zuen hasieratik Celaá, sailburuak. Badirudi, “ikastetxeen esku” dagoela ekimen honetan parte hartzea edo ez, eta, gainera, “ikastetxe horietako ikasleek gurasoek ere oniritzia eman behar diote”. Celaáren arabera, “ikastetxe batek parte hartu nahi badu, baina, gela bat betetzeko nahiko ikasle ez baditu, ez du parte hartuko”.

2010-2011 ikasturtean 1.600-2.000 ikaslek parte hartu dute, gutxi gora behera, eta alde zuzenetik “ez da aukeraketarik” egin.

Esparru soziolinguistikoari dagokionez, “saioaren emaitzak ikastetxe guztietara eramateko modukoak izatea” nahi zutela esan zuen Hezkuntza sailburuak, honela, “gizartearen esparru guztietara” heltzeko asmotan. Honen harira, ikastetxeen aukeraketa bat burutu zuten 2010-2011 ikasturterako; aukeraketa publiko eta itunpekoen artean egin zen, hezkuntza eredu guztiak eta gizarte aniztasun zabalena lortzeko asmoz.

Ikasturtearen hasieran eta amaieran egin dituzten ebaluazioak ISEI-IVEI-ek Hezkuntza Sailak hala eskatuta. Hala ere, emaitza hauek ez dira 2011. urteko urrirako arte ezaugarriak gutxi gora behera. Bestalde, ebaluazio hauek ez dira ikasleei egindakoak izango, soilik eredu berriaren emaitzak ebaluatu nahi baitituzte.

3.3 Hezkuntza Marko Hirueledunaren ezaugarriak

Aurreko atalean, Isabel Celaá emandako azalpenen bitartez, Hezkuntza Marko Hirueledunaren ezaugarri nagusiez hitz egin dut, baina, jarraian datu hoiek zehatz-mehatz eta eskematikoki azalduko ditut, betiere 2011ko datuez ari garela kontutan hartuta: (Euskaldunak eta Eleaniztunak bloga, 2010)

- 40 ikastetxek parte hartu dute: 25 publiko → 13 Bizkaian, 8 Gipuzkoan eta 4 Araban
15 itunpeko → 8 Bizkaian, 5 Gipuzkoan, eta 2 Araban
- Lehen Hezkuntzako 4. mailan edo DBHko 1.º mailan hasi
- Astero gutxienez 5 ordu (LHn) edo 6 ordu (DBHn) hizkuntza bakoitzean
- Ikastetxeak erabakiko du zein ikasgai emango den hizkuntza bakoitzean, bertako irakasleen prestakuntzaren eta ikastetxeak ezarritako bestelako irizpideen arabera
- Esperientzian parte hartuko duten irakasleek Europako B2 mailako titulazioa eduki behar dute gutxienez, eta hiru urterako konpromisoa hartuko dute
- Ikasleek borondatez hartuko dute parte

3.4 Hezkuntza Marko Hirueledunarekiko iritzia

Hiru eleko hezkuntza ereduak ezarri aurretik alderdi politikoaren artean eta hezkuntza eragilearen artean “adostasun zabala” lortzeko asmoa iragarri zuen Celaá sailburuak, baina asmo hark ez zuen edo gaur egun oraindik ez du lortu ehuneko ehunetan espero zuten erantzuna.

Azken proposamen hau, hau da, Hezkuntza Marko Hirueledunarena Legebiltzarrean aurkeztu zenean, hiru eleko hezkuntzaren beharra Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeko legebiltzarkide gehienek aipatu zuten. Hala ere, denek ez zuten bat egin sailburuaren proposamenarekin. Celaá hezkuntza eredu berriarekin elebitasuna

“indartuko” zela adierazi zuen arren, guztiek ez zuten uste proposamenak elebitasuna bermatzen zuenik.

Jarraian alderdi politikoetako kideek eta Euskal Herriko eragile ezberdinek proposamena aurkeztu zenean hartu zuten jarrera, edo orduan emandako iritzien bilketa bat egin dut (berria.info 2010-03-04 eta gara.net 2010-03-04):

- **Vicente Reyes (PSE-EEko legebiltzarkidea):** “Garrantzitsua da irakasleen prestaketa, hizkuntza jakin dezaten eta irakasteko erabiltzen jakin dezaten.”
- **Arantza Aurrekoetxea (EAJko legebiltzarkidea):** “Elebitasuna lortzea guztion artean adostu behar dugu, baina, oraindik alor horretan ez da ezer egin.”
- **Isabel Celaá (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua):** “Ikasleen hizkuntza gaitasunak hobetuko dituen eredu bat behar dugu; modu argian eskatu du gizarteak.”
- **Leopoldo Barreda (PPko legebiltzarkidea):** “Eredua borondatezkoa eta irekia izatea ona da, iraganean egindako hutsak errepika ez daitezen.”
- **Jesus Mari Larrazabal (EAko legebiltzarkidea):** “Ereduen hezkuntza sisteman behar diren aldaketak egin behar dira, probak iraun bitartean.”
- **Mikel Basabe (Aralarreko legebiltzarkidea):** “Orain arte eredu bakoitzak zer eman duen hartu behar da kontuan; eredu berria ezin da hutsetik hasi.”
- **Ezker Batua:** “Eusko Jaurlaritzak hiru eleko ereduen inguruan egindako proposamena elitista izan daiteke, baldin eta ingelesa dakiten irakasle gehien duten ikastetxeetara eramaten bada. Maila sozioekonomiko bateko eta besteko ikastetxeetan martxan jartzeko eskatzen dugu.”

Honaino, proiektua legebiltzarrean aurkeztu zenean orduan legebiltzarkide zirenek eta Euskal Herriko alderdi politikoetakoek esandakoak. Hitz hauetan orain arte zalantzan jarri izan diren zenbait gaien aipamena egiten da: irakasleen gaitasuna eta hizkuntza maila, elebitasunaren bermatzea, ereduaren malgutasuna...

Iritzi hauek garrantzitsuak diren arren, proposamena egindakoan eta baita gero ere kezka handiena azaldu dutenak eta honen inguruko hainbat adierazpen egin zituztenak eta dituztena Euskal Herriko eragile eta sindikatu ezberdinak izan ziren eta dira. Jarraian, proposamenaren aurkezpenaren berri izan zutenean zenbait eragilek egindako adierazpenak prentsan bildu ziren moduan (berria.info eta gara.net 2010-03-04):

- **ELA:** ELA “beldur” da, “Nafarroan gertatzen ari den moduan” hiru hizkuntza bermatzera baino gehiago euskararen garrantzia eta presentzia ikasgeletan lausotzeko asmoz egindako proposamena ez ote den izango. Sindikatuak berretsi du egungo hiru hizkuntz ereduen sistema gaituzte egin behar dela eta EAEn ofizialak diren bi hizkuntzen ezagutza eta erabilera erreala bermatzeko eredu berri bat eskatu du. Atzerriko hizkuntzen trebakuntzan aurrerapausoak ematea beharrezkotzat jo du. Salatu egin du proposamena prentsaren bidez jaso izana.
- **LAB:** Isabel Celaá PPri eta UPNri begira ari da, LABen arabera. “Nafarroan UPN erabiltzen ari den estrategia berbera EAEn ezarri nahi du, eta gizartearen ingelesarekiko dagoen interesa, eleaniztasunarekiko

dagoen jakin-mina baliatu nahi du euskarazko irakaskuntza ahultzeko. Halaber gogorarazi du ikasle asko euskara jakin gabe ateratzen direla eskolatik: “Nola uztartu helburu hori lortzea gure ikasleek hirugarren hizkuntza ikastearekin?”. Hala, proposamen eskasa dela dio. Bestetik, salatu du proposamenaren berri hedabideetatik izan dutela.

- **Ezker Abertzalea:** Ezker abertzalearen irudiko, PPren aginduetara jarri da PSE-EE, eta hezkuntza arloan bi alderdien artean ez dagoela ezberdintasunik nabarmen geratu da. Hala, euskal gizarteari erne egoteko deia egin dio, “proiektu horrek euskarazko irakaskuntza ahultzea baitu helburu”. Ezker abertzaleak berretsi egin du eleaniztasunaren alde dagoela, hau da, euskarazko irakaskuntza ardatza duen eleaniztasunaren alde. Haatik, Celaáren ereduak ez dituela euskaldun eleaniztunak sortuko nabarmendu du.
- **Eskolak Euskaldundu Herri Ekimena:** Eskolak Euskaldundu herri ekimenak, lehenik eta behin, gurasoak zoriondu nahi izan ditu, euskarazko ereduaren aldeko hautua egin dutelako, eta Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan soilik %4k aukeratu dutelako A eredu. Isabel Celaá, ordea, horri bizkarra eman, eta hezkuntza komunitatearen gehiengo “zabalararen” iritziaren kontra ari dela nabarmendu dute. Hala, “gehiengoak” nahi duen eredu euskalduna eraikitzeke garaia dela iritzi diote: “D eredutik abiatuta, munduko hainbat herrialdetan bezala, murgiltze ereduaren oinarritutako hizkuntza ereduaren abian jartzeko garaia da”.
- **Euskal Herriak Bere Eskola:** Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimenak gogor salatu du Celaáren egitasmoa. Haien iritziz, “hiru eleko eredu berria euskarazko hezkuntzaren aurka frankismo garaitik egin den eraso larriena da”. Celaák “iruzur” egin duela uste du, eredu berria gurasoen %75en iritziaren arabera osatu beharrean %4ren “neurritza” egin baitu. EHBE ziur da eredu berriak ez dituela euskaldunduko ikasle gehienak: “Eredu honek gehiago du A eredutik B eredutik baino. B ereduak euskarari eskaintzen dizkion orduen erdiak eskaintzen dizkio; beraz, B ereduak baino emaitza kaskarragoak emango ditu”. Gogorarazi du B ereduak hiru ikasletik bakarra euskalduntzen duela.
- **Euskal Herriaren Euskaraz:** Eredu bakar eta euskaldunaren alde egiten dute apustu, eta proposamena “eraso berri bat” dela salatu dute. Horregatik, hainbat elkarretaratze egin zituzten, eta “euskalduntzen ez duten ikastetxeak” markatu, eta eskola atarrietan informazioa banatu zuten.
- **Ikasle Abertzaleak:** Ikasle Abertzaleak taldearen ustez, Jaurilaritzak proposatu berri duen ereduaren ikasleek euskaldunduak izateko duten eskubidearen kontrakoa da. Proposamen “espainolista” dela salatu du: “Ingelesa ikasteko aitzakian euskara desagerrarazteko estrategian egindako beste urrats bat da”, eta, horrenbestez, euskararen eta Euskal Herriaren aurkako “eraso” gisa hartu du. Halaber, hezkuntza komunitatea kontuan hartu barik hartutako erabakia dela deritzo. “Neurri guztiak PPK ordezkatzeko duen eskuin espainolistarekin adostu ditu”.

Marko hirueleduna abian jarriko zela jakindakoan egindakoak dira adierazpen hauek, eta alderdi politikoen aldetik orokorrean adostasun bat zegoela esan daitekeen arren,

ezin liteke gauza bera esan eragile eta sindikatuei dagokienez. Beste behin ere, ikus daiteke hezkuntza eleanitza ezartzeak, euskara galduko ote denaren edo euskarak nahiko presentzia izango ote duenaren zalantza sortzen duela; eragile eta sindikatuek euskara bezalako hizkuntza gutxitu batentzat kaltegarria izan daitekeela uste dute.

Adierazpen hauetan ikus daiteke marko hirueledunaren euskararentzat “eraso” bezala ikusten dutela, eta “euskara desagerrarazteko estrategia” bat dela ere aipatzen dute. A eta B ereduetan izandako emaitzak beraien aldeko argumentu bezala erabiltzen dute. Gainera, beraiek uste dute “EAEEn ofizialak diren bi hizkuntzen ezagutza eta erabilera erreala bermatzeko eredu berri bat” behar dela, proposamen berri horrek ez lukeelako euskalduntzea bermatuko. Izatez, helburua “euskarazko irakaskuntza ahultzea” dela ere baieztatzen dute.

3.5 Hezkuntza hirueledunarekiko kritika eta proposamen zehatzak

Eragile, sindikatu eta alderdi politikoak ez dira kritikak egin dituzten bakarrak izan. Aurretik horietako zenbaiten proposamenaren momentuan egindako adierazpenez gain, gerora ere beste hainbat eragile eta pertsonen ere ereduarekiko kritikak izan dituzte; hala ere, kritikak ez du beti zertan kaltegarria izan behar, eta zenbaitetan proposamen berriei eta zenbait egokitzapenei lotuta egoten dira.

Hemen horietako adibide batzuk emango ditut, sarean eta aldizkarietan beste asko aurki daitezke, eta mota ezberdinetakoak aurkitu ere; baina, nik hemen horietako zenbaiten adibide gisa hiru kritika, proposamen edota iritzi aztertuko ditut. Betiere gune edo pertsona konkretu batzuei lotutakoak izan ez daitezela saiatuz.

Alde batetik, Arantza Aurrekoetxea eta Mikel Basabe, EAJko eta Aralarreko legebiltzarkideen iritzi artikulua bat erabiliko dut, 2010. urteko martxoaren 11an Berrian argitaratu zena; bestetik El Diario Vasco egunkarian Konrado Mugertza, Euskadiko Eskola Kontseiluko lehendakariari egindako elkarrizketa bat (<http://www.diariovasco.com/v/20100314/al-dia-sociedad/marco-trilingue-debe-flexible-20100314.html>); eta, azkenik, Sortzen-Ikasbatuaz en aldarrikapenak, alde batetik Berria egunkarian agertutakoak (berria.info 2011/01/19) eta sarean dauden aldarrikapen ezberdinak.

Arantza Aurrekoetxea eta Mikel Basabe, EAJko eta Aralarreko legebiltzarkideen gutuna

Arantza Aurrekoetxea eta Mikel Basaberen, EAJko eta Aralarreko legebiltzarkideen iritzia emateko gutun bat argitaratu zen Berria egunkarian, 2010. urtean: *Euskara marko hirueledunean*. Bertan Hezkuntza sailburuak proposatutako Hezkuntza Marko Hirueledunari buruz hitz egiten dute, eta hezkuntza eleanitz baten alde daudela esaten duten arren, proiektuaren oinarriak “desegokiak” direla uste dute.

Beraien ustez, hezkuntza sailburuak egindako proposamenak ez du legerian jasotako helburua bermatzen: “ikasleek derrigorrezko eskolaldia amaitutakoan hizkuntza ofizial bietan behar adinako gaitasuna izatea”. Hezkuntza eleaniztunaren alde daude, eta bat egiten dute Hezkuntza sailburuak aipatutako helburuekin: “ euskara sustatu, elebitasuna bermatu eta ingelesari eragin”.

Baina, beraien hausnarketan ondorioztatzen dute, oinarriak “desegokiak” direla hiru arrazoiengatik: “okerreko abiapuntua du, helburuak ez dira zehatzak eta bitartekoak ez dira egokiak”.

Abiapuntua ez dela zuzena esaten dutenean, Gobernuak “hezkuntzako euskalduntze prozesua amaitutzat” jotzen dutela eta beraien ustez “eskolak euskalduntzen jarraitu behar” duela esan nahi dute. Gobernuak hezkuntza eredu guztiak abiapuntu berdina balira bezala, hartzen dituztela uste dute, nahiz eta “azkeneko hogeita hamar urteek erakutsi zeinek balio duen ondoen hizkuntza ofizial biak ikasteko, eta zeinek ez duen helburu horretarako balio”. Bestetik hizkuntza errealitatea ere kontutan hartzen ez dela uste dute, izan ere, “ez ditu aintzat hartu ez eskolaren euskalduntze maila desberdinak, ez eta egin diren esperientzia hirueledunak ere.”

Helburuak zehaztu ez direla diotenean, berriz, ikasle-taldeek lortu beharreko hizkuntza-mailak ez direla zehaztu diote; helburuek lorgarriak eta neurgarriak izan behar dutelarik. “Euskaraz eta gaztelaniaz komunikatzeko behar adinako gaitasuna” zer den definitzea, ebaluazio irizpideak zehaztea eta esperientzia ikastetxe guztietara zabalduko denentz jakitea eskatzen dituzte. Laburbilduz, proiektua zehaztea eskatzen dute. Gainera, euskararako eta gaztelararako, hizkuntza ofizialak izanda, helburu “berbera” jartzea iruditzen zaie egokia, baina, ingeleserako, atzerriko hizkuntzarako, egokiena lorpen maila bat jartzea dela uste dute.

Bitartekoei dagokienez ere, marko hirueledun honetan “euskarari ez zaiola arreta berezirik egin” baieztatzen dute. Helburuak zehaztu gabe egonda, ez dute zentzuzkoa ikusten ikasgaien %20eko gutxieneko kopurua ezartzea.

Ondorioz, azkeneko hogeita hamar urteetako esperientzia kontutan hartuta, uste dute “hizkuntza ofizial biak jakiteko ez dela nahikoa hizkuntza horietatik ahulen dagoenari orduen %20 eskaintzea”. Beraien ustez, aipatutako esperientzia horrek “eskolan denbora gehiena euskaraz egin duten ikasleek” lortzen dituzte “emaitzarik onenak”.

Irakasleen euskara-gaitasuna hobetzeko aurreikuspenak ez jaso izana ere leporatzen die Gobernuari, eta azkenik beraien ustez proposamenak babesa inoiz ez du izan “orain artekoa baino txikiagoa”.

Konrado Mugertzako, Euskadiko Eskola Kontseiluko lehendakariaren elkarrizketa Diario Vasco egunkarian

Konrado Mugertza, Euskadiko Eskola Kontseiluko lehendakariari Diario Vasco egunkarian 2010. urteko martxoan egindako elkarrizketa batean, Mugertzak ezartzekoa

zen marko hirueledunari buruz duen iritzia ematen du, eta hobetu daitezkeen zenbait kontu ere aipatzen ditu. Lehenik eta behin esan beharra dago, Eskola Kontseilua Eusko Jaurlaritzaren kontsultarako talde edo organoa dela; eta honek aldi berean hezkuntza komunitateko kide guztiak ordezkatzeko ditu (gurasoak, irakasleak, sindikatuak...), bai ikastetxe publikoetakoak eta baita itunpekoetakoak ere.

Mugertzak ere ereduarekiko zegoen zehaztasun falta salatzen zuen bertan. Eta, elkarriketaren une batean hezkuntza hirueleduna euskararentzat kaltegarria izan ote daitekeen galdetzen dio kazetariak, eta berak horren inguruan ikastetxeen egoera soziolinguistikoaren arabera eta ebaluazioen emaitzen arabera “malgutasun handiagoa” eskatzen du. Bestela, euskararen ezagutza ez dela bermatuko uste du; izan ere, bere iritziz “hezkuntza elebidunak ere ez du bermatzen”.

Eredua proba moduan aurkeztu arren, ikastetxe gehiagotan probatu behar zela uste zuen, eta horretarako zenbait ikastetxe eta irakasle prest egongo liratekeela ere adierazi zuen. Horrez gain, eragileak eredu gauzatzekoan kontutan ez hartzea ere salatu zuen Mugertzak, elkarriketan.

Kazetariak ikasleen hizkuntza mailaz galdetzen dionean, hezkuntza elebiduna izatea eta ikasle elebidunak izatea, kontutan hartzen ez dugun “aberastasun” bat dela dio. Momentu batzuetan lan handia eskatu dezakeela onartzen du; baina, baieztapen batekin amaitzen du: “gasteleraren ezagutza guztiz bermatzen da D ereduan, eta, aldiz, A ereduan euskararena oso murrizta da”.

Beraz, beste behin ere Hezkuntza Marko Hirueledunak euskararengan izan ditzakeen ondorioetan dago kezka handiena.

Sortzen-Ikasbatuaz sareko eskolek egindako zenbait aldarrikapenen inguruko albisteak Berrian eta internetako informazioa

Sortzen-Ikasbatuaz Euskal Eskola Publiko Berriaren aldeko elkarte da, Nafarroa Garaiko Sortzen eta EAEko Ikasbatuaz elkarte bategitearen ondorioz sortua. Sortzen-Ikasbatuaz eskola komunitateko kide guztiek dute lekua: irakasle, guraso, eskola-langile eta ikasleak. Helburua Euskal Eskola Publiko Berria eraikitzea da.

2011. urteko urtarrilean Berria egunkarian albiste hau agertu zen: “Sortzen-Ikasbatuaz sareko eskolek eredu eleaniztunei uko egin diete”. Sortzen-Ikasbatuaz sareak bertan jakinarazten zuen Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Arabako hainbat eskoletan Jaurlaritzaren hiru eleko ereduan eta TIL ingelesezko proiektuan parte ez hartzearen aldeko proposamena zabaldu zutela jakinarazten zuten. Proposamen horrek 80 ikastetxe inguru biltzen zituen.

Hizkuntza ereduari uko egitearen arrazoiak hau zela azaltzen zen albistean: “eredu horiek euskarari, hizkuntza gutxitua den heinean, «kalte besterik ez diote egiten». Ikasle eleaniztunak hezteko eredu bakar eta euskalduna behar dela aldarrikatu dute.”

Eredu honen bitartez, euskara irakats hizkuntza nagusia bilakatu beharrean gaztelaniarekin parekatzen dela salatu zuten “Hizkuntza gutxitua izaki, ezinezkoa da horrela berreskuratzea. Hezkuntzako eragile zein sindikatuen gehiengoak hizkuntza eredu bakar, euskaldun eta eleaniztuna defendatzen” dutela ere adierazi zuten.

EAEko hezkuntza sailak aurkeztutako eredu berria “inposaketa” bat dela ere salatu izan dute Sortzen-Ikasbatuazekoak. Eredu honek “B eredu ezkutu bat” izan nahi duela ere salatu izan dute, eta “B ereduan ikasleen herena baino ez dela euskalduntzen” gogorarazi zuten; honela, “euskarazko orduak murriztuko dituzte ingelesezkoak jartzeko” Sortzen-Ikasbatuazek ustez.

Kritika horri, hala ere, bere proposamena egiten diote Sortzen-Ikasbatuazekoek: “Euskal Herrian ematen den egoera diglosikoan euskarazko murgiltze eredu batek lortu ditzake soilik helburu hauek; alegia, euskaraz bizitzeko gaitasuna, gainerako hizkuntzetan komunikatzeko gaitasunarekin batera”. Beraien ustez, ikasle guztiek euskara ezagutzeko duten eskubidea bermatu behar da eta euskara eskola hizkuntza izan behar du. Sortzen-Ikasbatuazekoek argi dute: “elebitasun osoa lortzera gehien hurbiltzen den eredu bakarra D eredu da”.

Eredua ebaluatzeko modua ere kritikatzeko du Sortzen-Ikasbatuazek, aurten egin den eta urtero egingo den ebaluaketa ikaslegoari ez zaiola egiten uste dute, egiten den ebaluazioa “esperimentuarena” dela uste baitute.

Gauzak honela, Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban onartutako hiru eleko ereduan parte ez hartzeko deia egin zieten, beraz, Sortzen-Ikasbatuazeko ikastetxeek. “Ereduei uko egin eta hezkuntza agintariei proiektuak bertan behera uzteko” eskatu zieten urtearen hasieran. Eta, eskaera argi bat egiten dute: “Euskaldun eleanitzak sortzen dituen eredu bakarra nahi du”.

Sortzen-Ikasbatuazekoek argi eta garbi uzten dute ez dutela gustuko Hezkuntza Marko Hirueleduna, aldiz, D eredu oinarri duen eredu bat proposatzen dute; Euskal Herrian bizi den egoera diglosikoa kontutan hartuta, ikasle euskaldunak eta eleanitzak sortzea bermatuko duen eredu baten alde daude.

3.6 Hezkuntza Marko Hirueleduna abian jarri duten ikastetxeen bizipenak

Garrantzitsua da eragileek, alderdi politikoek, hezkuntza sailburuak, ekimenek... marko hirueledunaren inguruan pentsatzen dutena eta esaten dutena ezagutzea. Baina, garrantzitsua da baita ere 2010-2011 ikasturtean marko hirueleduna abian jarri duten ikastetxeen bizipenak ezagutzea. Ezinbestekoa da marko hirueleduna praktikan izan duten ikastetxeen iritzia ezagutzea, beraien ereduaren nondik norakoak ezagutzea, ikastetxeetan izan dituzten emaitzak (oraindik ez dituzte ISEI-IVEIlekoen emaitzak jaso) eta sentrazioak jasotzea, beraiek eredu honetan euskara zein lekutan ikusten duten jakitea...

Horretarako, 2010-2011 ikasturtean Hezkuntza Marko Hirueleduna abian jarri duten bi ikastetxeei galdeketa bat egin diet. Hezkuntza Marko Hirueleduna hobeto ezagutzeko asmoz, hamahiru galderez osatutako galdetegi bat prestatu nuen. Guztira 40 ikastetxe publiko eta itunpekotan jarri zuten martxan hiru eleko eredu berria. Ni ikastetxe horietako askotan saiatu naiz informazioa biltzen, horretarako ikastetxe publiko nahiz itunpekoetara, probintzia edo lurralde ezberdinetara eta egoera soziolinguistiko ezberdinetara galdetegiak bidaliz; baina, zoritxarrez edo halabeharrez, bi ikastetxek erantzun diete nire galdetegiari. Horregatik, berriro ere, eskerrak eman nahi dizkiet Tolosako Laskorain Ikastolari eta Urnietako Maria Ikastetxeari, nire proiektu honetan parte hartzeagatik.

Laskorain ikastola Tolosako herri ekimenez 1967an sortutako ikastola da. Tolosako egoera soziolinguistikoari dagokionez, Tolosan euskaldunen kopurua %65 ingurukoa da eta udalak egiten dituen kale neurketen arabera euskararen erabilera %45 ingurukoa da.

Ikastolan, berriz, familien %67a euskaldun elebakarrak dira. Guraso gazteen mailatan portzentajea igo egiten da. Azken urteetan ia guraso bilera guztiak euskara hutsean egiten dituzte. Ikasleriaren % 3a gutxi gora behera etorkina da. Ikasleen artean euskararen erabilera neurketak urtean bitan burutzen dituzte (urrian eta maiatzean), eta Udalak ere egin ohi ditu. Datu hauen arabera esan daiteke Laskorain ikastolako ikasleria euskalduna dela. Ikastola honetan Hezkuntza Marko Hirueleduna abian jarri aurretik, duela 20 urte abian jarri zuten Eleanitz proiektua zuten martxan. Proiektu honen ezaugarrietako bat ingelesaren irakaskuntza goiztiarrarekin (4 urteko ikasleak) hastea da. Hezkuntza sailaren Hezkuntza Marko Hirueledunari dagokionez, berriz, 2010-11 ikasturtean jarri dute martxan.

Urnietako Maria ikastetxeari dagokionez, honakoa Eskola erakundearen parte den ikastetxe erlijioso bat da. Eta, bertan D ereduak izan duten orain arte, nahiz eta, ikasle gehienen familiak erdaldunak diren. Ezin izan dut Urnietako euskaldunen eta euskara erabiltzen dutenen daturik eskuratu. Urnietako Maria ikastetxean 2010eko irailaren 1etik dute abian Hezkuntza Marko Hirueleduna.

Ikastetxe guztiek ez dute kontuan hartzen ingurunean bizi duten egoera soziolinguistikoa beraien ereduak egokitzerakoan, beste batzuek, aldiz, bai. Horren adibide Maria eta Laskorain ikastetxeak. Maria ikastetxekoek ikastetxe guztietan berdinean neurtzen dela diote eta Laskorain ikastolakoek, berriz, ingurune soziolinguistikoa oso kontutan hartzen dutela diote. Hau ikusita Laskorain ikastolakoek honela antolatzen dituzte hizkuntzen orduak: euskara da hizkuntza ardatz nagusia eta orduak %58tik %100erako presentzia du, maila/ziklo/etaparen arabera; gaztelerak berriz %0tik %13rako presentzia du, maila/ziklo/etaparen arabera; eta, azkenik, ingelesak: %0tik %30erako presentzia du, maila/ziklo/etaparen arabera. Urnietako Maria ikastetxean ere presentzia handien aduen hizkuntza euskara da.

Laskorain ikastolari, marko hirueledunean bete behar diren hizkuntza mailak buruz galdetuz gero, LH-6 mailan ikasleek B1 hizkuntza maila izan behar dutela diote, eta DBH-4.mailan, B2 euskararen eta gazteleraren, eta B1 atzerriko hizkuntzan. Urnietan Kurrikulumak eskatutako hizkuntza mailak jarraitzen dituzte.

Bi ikastetxeetan kanpoko ebaluazioak egin dizkiete ikasturte hasieran eta amaieran. Laskorainek kanpo ebaluazio ezberdinetan parte hartzen du: Kanpo ebaluazioa: ISEI-

IVEIk ereduaren arabera hizkuntzen konpetentzien neurketa egin dute. Ikastolen Elkartek bideratzen dituen neurketetan ere parte hartu ohi dute. PISSA eta TIMS neurketetan parte hartu dute. Ebaluazio diagnostikoan ere parte hartu izan dute azken ikasturteetan. Eta, azkenik marko hirueledunak ezarri duen neurketan parte hartu dute. Kanpo ebaluazio horietako emaitzen inguruko hausnarketatik abiatuz, hobekuntza planak ere jarri dituzte martxan.

Hala ere, ez dute kanpoko ebaluaziora soilik egokitzen beraien lana eta barne ebaluazioak ere egiten dituzte. Ebaluazio irizpideak mailaz-maila ezarrita dauzkate, arloko konstanteen eta erreferentziaren arabera, eta azken helburuak lortzera bideratuta daude. 2010-2011 ikasturtean, DBH 4.mailan gainditze tasak honako hauek dira (ikastolako datuen arabera): euskara %100, gaztelera %97 eta ingelesa % 95.

Urnietan, kanpo ebaluazioak egiten dituzte, ISEI-IVEI eta Cambridg arduratzen dira neurketa egiteaz kurtso hasieran eta amaieran; ebaluaketa beraien esku uzten dute.

Emaitzei dagokienez kanpo ebaluazioetakoak ez dituzte jaso oraindik, ISEI-IVEIk ikasturtearen hasieran eta amaieran egindako ebaluazioen emaitzako 2011ko urrian ezagutu ahal izango dira, gutxi gora behera. Laskorainen egin dituzten ebaluazioetan emaitzak “onak” direla diote, nahiz eta, beti ere euskarari hobeagoak izaten diren gaztelaren baino.

Euskara hizkuntza gutxitua izanda, marko hirueledunak euskararengan izan ditzakeen eraginei buruz galdetuta, Laskorainekoen ustez “ingurune soziolinguistikoa oso kontuan hartu behar da horrelako esperientziaren bat martxan jartzerakoan, eta eredu malgoa behar du egoera honetara egokitzeko. Horrela egin ezean euskararen egoera eragin oso kaltegarria izan dezake”. Ikastolakoek beste behin ere aipatzen dute ingurune soziolinguistikoa kontutan hartzeko beharraz, eta eredu malgua izan behar dela uste dute, orain arte ikusitako zenbait iritzitan bezala. Marko hirueleduna abian jartzeak ikasleen jarreraren edo hizkuntzaren batenganako jarreraren aldaketa bat eragin dezakeela pentsa daiteke, baina, Laskorain ikastolaren kasuan ez dute “aldaketa aipagarriarik nabaritu”; izan ere, beraiek orain dela 20 urtetik martxan duten Hizkuntza proiektuaren eta Eleanitz egitasmoaren lan ildoak hartu dituzte oinarritzat, eta bertan marko hirueleduna txertatu dute. Beraz, beraientzat egokitze soil bat besterik ez da izan.

Urnietako Maria ikastetxeek aurten jarri dute abian marko hirueleduna, eta bereziki ingelesarekiko jarrera aldaketa nabaritu dutela diote. “Orain arte, ona bazen ere orain komunikaziorako trebetasun handiago bat” nabaritu dute. Beraz, jarrera aldaketa hizkuntza hori gehiago lantzearen ondorio izan da. Agian, hizkuntza bat zenbat eta gehiago menderatu, orduan eta jarrera positiboago izango duzu hizkuntza horrekiko. Maria ikastetxearen iritziz euskara ikasteko zailtasuna hizkuntza indoeuroparra ez izatean datza: “gaztelania ama hizkuntza baldin bada, euskara oso urrun dago gaztelaratik, izan ere ez da hizkuntza indoeuropar bat. Arrazoi honengatik, berriz, ikasleei ingelesa ikastea ez zaiela “hain zaila” egiten uste dute. Urnietakoek lehen aldiz jarri dutenez martxan eredu hirueleduna hainbat aldaketa sumatu dituzte ikasle eta gurasoengan. Hizkuntza mailari dagokionez, mintzamenean “hobekuntzak” nabaritu dituzte hiru hizkuntzetan. Bestetik, euskarari eta gaztelanari “dezente hobetu dute” pentsamenduak adierazterako gaitasuna, bai eztabaidatzerakoan, argudiatzerakoan... Gainera, ikasleek “ingelesean aurreikusi zen maila gainditu dute” eta hizkuntza abilezien arteko orekara “gehiago” gerturatu dira. Gurasoei dagokienez, proiektuaren

garapenarekin “asebete” sentitu direla adierazi diete; eta ikasleak marko hirueledunarekin “oso motibatuta” daudela diote. Inplikatura dagoen eta ez dagoen irakaslegoari dagokionez, “poztasun maila altua da” eta “pentsamolde aldaketa bat” suposatu du. Beraz, badirudi Urnietako Maria ikastetxean marko hirueledunak eragiten dieten pertsona guztiak oso gustura daudela izandako emaitzekin; ikasleen, gurasoen eta irakasleen jarrera oso positiboa da. Eta, emaitzei dagokienez ere badirudi esperotako emaitzak eskuratu dituztela, eta are gehiago gainditu ere egin dituztela.

Gauza guztiek bezala, Hezkuntza Marko Hirueledunak gauza positibo eta negatiboak ditu; zer esanik ez 2010-2011 ikasturtea, lehena izan dela kontutan hartuta. Ikastetxeek, eurek proiektuari ikusi dizkieten alderdi positibo eta negatiboak ezagutzea garrantzitsua da, hurrengo urteetan abian jarraituko duen proiektu hau hobetzen joateko. Honela, lehenik eta behin gauza positiboetan jarriko dugu arreta. Tolosako Laskorain ikastolak ikusten dizkion gauza positiboak hauek dira: “gure Hizkuntza proiektuaren eta Eleanitz proiektuaren baliagarritasuna agerian jartzea, hizkuntza marko hirueleduna bere baitan jarriaz” eta bide batez, “balio hori kanpoko ebaluazioaren bidez baieztatzea”. Beraiek duela 20 urte abian jarri zuten Elenitz proiektua probatzeko modu bat da, kanpo ebaluazioak baliagarriak izan daitezke, orain arte egin duten lana baieztatzeke eta baloratzeko. Proiektua sendotuta dute jada, eta horrek emaitzak mantentzea ekarriko dietela uste dute. Urnietan alde positiboa ikasle, irakasle eta gurasoek proiektuarekiko izan dute jarrera positiboa, eta jasotako emaitza positiboak izan dira ereduaren alde onak.

Hala ere, normala den bezala dena ez da positiboa eta bi ikastetxeek proiektuak hobetu ditzakeen zenbait puntu ikusten dizkiete. Laskorain ikastolak euskararen egoera bermatze aldera “ereduak malgutasuna” behar duela uste du; honela, marko hirueleduna “tokian tokiko egoera soziolinguistikoetara” egokitu ahal izango delarik. Bestalde, bada proiektuari ikusten dion beste alde negatibo bat ere, eta honako hau da: “hezkuntza sailak egiten duen proiektuaren erabilera politikoa”. Urnietako Maria ikastetxeak ere zenbait gauza hobetuko lituzke marko hirueledunean. Alde batetik, proiektua 2010eko martxoan aurkeztu zenetik irailean abian jarri zen arte denbora gutxi igaro zela uste dute, eta horregatik “gure errealitatera egokituta dagoen materiala egiteko denborarik ez” zutela izan diote. Formakuntzari dagokionez, beraientzat “zailtasun/inkomoditate handia” izan da Gasteiz eta Bilboko Berritze Guneetara joan behar izatea. Beste ikastetxe batzuekin “amankomuneko ezaugarriak” aurkitzea ere “zaila” izan dela diote, “errealitate bakoitza zeharo desberdin”a baita. Hori dela eta, esperientziak partekatzea ere zaila izan dela diote. Ebaluazioari dagokionez ere, bada aldatuko luketen zerbiat; izan ere, kanpo ebaluaketak oso jarraian egin direla uste dute: “lehenengoa otsailean izan baitzen, eta azkenekoa ekainean” izan zen.

Alderdi negatibo hauek alde batera utzita, bi ikastetxeek 2011-2012 ikasturtean ere Hezkuntza Marko Hirueledunarekin aurrera jarraitzeko asmoa dute, eta gauza bera egingo dute 2010-2011 ikasturtean proiektua aurrera eramanez duten beste 38 ikastetxeek ere.

3.7 Hezkuntza Marko Hirueledunak aurrera jarraituko du 2011-2012 ikasturtean

2011-2012 ikasturtean ere abian jarraituko du Hezkuntza Marko Hirueledunak, eta Isabel Celaá, Hezkuntza sailburuaren arabera, “hiru eleko ereduak ez du atzera bueltarik” (berria.info 2011/05/31). Hiru eleko hezkuntza sistemaren bilakaera ezin dela gelditu nabarmendu zuen Isabel Celaá, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak, 2011ko maiatzean emandako prentsaurreko batean. “Ez du atzera bueltarik, ezta esku frenorik ere” (berria.info 2011/05/31), adierazi zuen Celaák prentsaurreko horretan, beraz, proba moduan ezarri zen marko hirueledunak martxan jarraituko du datozen ikasturteetan ere. Saioaren lehen datuak 2013. urtean jakinaraziko dira, hau da, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egingo diren urtean. Nahiz eta, argi eta garbi adierazi zuen hiru eleko hezkuntza esparruak “aurrera jarraituko duela, gobernu aldaketa balego ere”.

Isabel Celaák azaldu zuen “babes zabala” jaso duela “azken urteotako hizkuntza eredia aldatzeko”. Gainera, gaineratu zuen “eredu egokiena egiten lagunduko dutela bertan parte hartzen ari diren ikastetxeen emaitzek”. Hortaz, badirudi 2010-2011 ikasturtean egin diren ebaluazioetan jasotako emaitzek datozen urteetan marko hirueledun hobeak egiteko balioko duela. Hala, “egun martxan dauden egitasmoak bukatzean eta horien ebaluazioa egitean” ezarri nahi du Hezkuntza Sailak hiru eleko eredia behinbetiko.

2011-2012 ikasturtean 78 ikastetxe berrik parte hartuko dute egitasmoan; 46 eskola publikok, eta hitzartutako 32 ikastetxek. Sare publikoko 20 ikastetxeko gutxienez muga jarri zuten deialdian, eta 47 ikastetxe aurkeztu ziren. Horietatik bakar bat gelditu da kanpoan. Hitzartutakoen kasuan gutxienez 27 ikastetxeren parte hartzea adostu zen, eta 32 aurkeztu dira azkenik, itunpeko ikastetxeen patronalak erabakita. Badirudi 2010-2011 ikasturtean hainbat ikastetxe ez zirela garaiz iritsi deialdiaren barruan eskaria egitera. 2011-2012 ikasturterako, berriz, “aurreikuspen guztiak” gaingitu omen dira; honela, lurraldeak eta ikastetxe motak modu orekatuan jasotzen direlarik.

Aipatutako 78 ikastetxe horiez gain, aurreko ikasturtean lanean hasi ziren 40 eskola daude; hau da, guztira 118 ikastetxe ari dira hiru eleko ereduaren datoren ikasturtean. Ordea, bakoitzak bere erritmoa mantenduko du. Aurreko ikasturteetan lanean ari direnek iaz hasitako talde berarekin jarraituko dute lanean, Lehen Hezkuntzako 5. mailan eta DBHko 2. mailan. Datorren ikasturtean hasiko direnak LHko 4. mailan eta DBHko lehen mailan hasiko dira. Iaz proiektua hasi zutenek egin zuten modu berean.

Ikastetxe horietatik 68 Bizkaian daude, 27 Gipuzkoan eta 23 Araban. Ikastetxe gehienek, euskara eta gaztelaniaz gain, ingelesa erabiliko dute irakas hizkuntza bezala. Hiru ikastetxetan, ordea, frantsesa izango da hirugarren hizkuntza, eta beste kasu batean alemana.

Hezkuntza Marko Hirueledunak jaso dituen kritikei ere erantzun zien prentsaurreko, Isabel Celaá, Hezkuntza sailburuak: “Sare publikoko eskari multzo handi honek berretsi eta indartu egiten du Hezkuntza Sailaren proiektu estrategiko hau, sindikatu nazionalisten kontrakotasun gogorra gaingituz. Egin duten kontrako kanpaina oso bortitza izan den arren, ikastetxeek oso modu egokian erantzun dute, beren ikasleen eta hezkuntza-komunitateen interesa lehenetsiz aurkakotasun estrategien gainetik”.

4. IKASLEEN HIZKUNTZA-MAILA

Hezkuntza Marko Hirueledunari gehien leporatzen zaion arazoa, ikasleak ez euskalduntzea da. Hau da, badirudi ez dela oso argi ikusten hezkuntza hirueledunarekin ikasleek euskaraz maila txukun bat lortzea. Hau euskarak bizi duen egoera diglosikoaren ondorio litzateke, eta hori argudiatzeko A eta B ereduetan ikasleen euskara maila eskasa izatea aipatzen dute.

Euskal Herrian orokorrean, eta Euskal Autonomia Erkidegoan zehazki euskara maila aztertzeko hainbat ikerketa egin da. Hezkuntza Marko Hirueleduna ere aztertu dute 2010-2011 ikasturtean, baina zoritxarrez, ezin izango dira Sakontze Egitsamoan emaitza horiek aztertu. Hezkuntza Marko Hirueleduna abian jarri duten ikastetxeetan egindako ikerketak irailean hasiko da aztertzen ISEI-IVEI ikerketa erakundea; eta gutxienez 2011. urteko urrira arte ezin izango da emaitzak jasotzen hasi.

Horregatik, hemen eredu elebidunean 2010 eta 2011.urteetan ISEI-IVEIek egindako ikerketetan oinarrituta A, B eta D ereduakotako euskara mailak aztertuko ditugu. Lan honetan zehar askotan aipatu dudan ikerketa erakundea da ISEI-IVEIrena. Horregatik, agian, ezinbestekoa da aurkezpentxo bat egitea. ISEI unibertsitateaz kanpoko Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakunde bat da. Eta honako hauek dira erakundearen helburuak: *unibertsitateaz kanpoko hezkuntza sistemaren ebaluazio orokorra egitea; hezkuntza ikerketa sustatzea unibertsitateaz kanpoko arloan; eta dokumentazio eta baliabide zerbitzua izatea hezkuntza esparruarekin lotuta (isei-ivei.net)*. Eta, bera da azken urteetan Euskal Autonomia Erkidegoan ebaluazio-proiektuak diseinatu eta garatzen dituen.

4.1 Ikasleen hizkuntza-maila aztertzeko egin izan diren azterketak

Euskal Autonomia Erkidegoan hainbat ebaluazio egin dira ikasleek duten hizkuntza-mailaren ezagutza aztertzeko asmoz. Lehenengo ebaluazio-saio zabala EIFE siglapean ezagutzen dena izan zen. Azterlan honen proiektua eta eskola-neurketak 1983-84 ikasturtean egin ziren, nahiz eta, argitalpena beranduago egin zen.

Irakastereduak berriak ziren oraindik, ikerketa hori egin zenean, baina sistema elebidun berriaren lehen datuak ezagutzeak interesa piztu zuen, gerora zer espero zitekeen ikusteko balio zezaketela pentsatzen baitzen. Laginak hiru irakastereduak (A, B, D) harrapatzen zituen eta OHOk 2. eta 5. mailak. B ereduak, berriz, ez zen 5. mailan neurtu, orduan oso gela gutxi baitzeuden maila horretan. Guztira ia 1.968 haur ebaluatu ziren EAEko ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan, zehazki, 336 ikasgelatakoak izan ziren ebaluatuak.

Haurren euskara eta gaztelania mailak neurtzeko berariazko testak diseinatu ziren, hizkuntzaren alor desberdinak aztertzen zituztenak: ahozkoaren ulermena, mintzamina, irakurmena eta idazmena. Horrez gain, ikasleen hizkuntza-maila aztertzeko interesgarriak izan zitezkeen zenbait datu bildu ziren, ikasleei eta euren inguruneari zegozkien datuak ziren. Batzuk haurrari berari buruzkoak: iritziak eta jarrerak, eskola-errendimendua, adimen-koefizientea, etxeko hizkuntza-giroa, bizilekuko hizkuntza-giroa... Eta beste zenbait datu irakasleari buruzkoak: esperientzi urteak, ama-hizkuntza, ikasleekin zein hizkuntza erabiltzen zuen... Azkenik eskolaren ezaugarriak ere jaso ziren: zein motatako ikastetxea zen (publikoa, pribatua, ikastola), gelako haur-kopurua, bertako hizkuntza-giroa, haur euskaldunen portzentajea, euskarari eskaintzen zitzaion denbora, zer-nolako irakasmateriala erabiltzen zuten...

Hauek dira Zalbidek eta Izagirrek (2011: 39.or) ebaluazio horretatik azpimarratzen dituzten puntuak, hiru ereduak kontutan hartuta:

- *A ereduak zen eredurik zabalduena: haur erdaldunez osatuta zegoen batik bat eta erdal inguruetan kokatua. Euskara aldetik bere emaitzak eskasak izan ziren, ikasleek euskara maila baxua zuten; hitz erraz batzuk zekizkiten doidoia.*
- *B ereduak OHOk 2. mailan bakarrik aztertu zen, gorago aipatu den bezala. Eredu honek ere haur erdaldunak biltzen zituen batik bat, eskolak erdi eta erdi euskaraz eta gaztelaniaz jasotzen zituztenak. Emaitzak oso heterogeneoak izan ziren, izan ere B ereduak aplikatzeko era eta intentsitate desberdinak agertu baitziren.*
- *D ereduak, azkenik, oso txikia zen: 10 urteko haurretan %15. Ikastoletan biltzen zen nagusiki, nahiz herri-eskoletan sartzen hasia izan eta baita ikastetxe pribatu batzuetan ere. Etxetik euskaldun diren ikasleek osatua zegoen neurri handi batean (orduan %60tik gora, baina gero proportzio hori gutxituz joan da). Euskara maila altua zuten besteen aldean.*

Euskara maila oso ezberdina zeukaten hiru ereduak ikasleek. Gaztelaniaren ezagutza, ordea, antzekoa zen. Euskaraz eskolatutako haurrek ere gaztelania ondo mendertzen zuten. Horrela, B ereduak lortzen zuen gaztelania mailarik altuena, A baino pixka bat goragoko puntuazioarekin eta D ereduak ikasleek ere antzeko puntuazio lortu zuten, nahiz eta, pixka bat baxuagoak izan ziren. Hala ere, bi hizkuntzak kontutan hartuz gero, D ereduak ikasleak ziren orokorrean emaitza onenak eskuratzen zituztenak.

Azterketan hartan ez zen ikasleen hizkuntza maila soilik aztertu, ingurune soziolinguistikoa ere kontutan hartu zen emaitzak aztertzerakoan; eta oro har, esan daiteke etxeko eta inguruko hizkuntza-giroak guztiz garrantzizkoak direla. Eskolan euskarari ematen zaion denbora ere oso inportantea agertzen zen, bereziki B ereduak. Eta, aurretik ikusi ahal izan dugun bezala Hezkuntza Marko Hirueledunaren kritiketako bat hizkuntza bakoitzari eskaini beharreko orduen zehaztapenean dago. Azkenik

haurraren pertsonalak bereziki nabarmentzen ziren, bereziki D ereduari. Gaztelaniaren azterketan ere gaitasun pertsonalek erakutsi zuten pisurik handiena. Jakinekoa da gaztelaniak presentzia indartsua duela gizartean eta, ondorioz, haurrek ezaguera-maila ona lortzen dutela kasurik gehienetan. Lehen EIFE hura argitaratuz geroztik, beste hainbat azterlan egin eta argitaratu ditu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak. Hasierako urteetan, bertako Euskara Zerbitzuaren bidez egiten zen lan hori, batez ere. Baina, 1999an lehenengo ikerketa burutu zuenetik, lehen esan bezala, ISEI-IVEI arduratu da hezkuntzako ebaluazio-lanez, eta tartean baita hizkuntzaren neurketaz.

Zalbidek eta Izagirrek (2011: 40.or) euskararen eta gaztelaren inguruan egin diren ikerketak bildu dituzte, eta nik hona ekartzea erabaki dut:

EIFE 1 Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina (OHO 2. eta 5. maila)	HUIS Euskara Zerbitzua 1986
Zortzi-A hizkuntza testa (OHO 8. maila - A eredu)	HUIS Euskara Zerbitzua 1986
PIR-5 Hizkuntza Testa. (Eskolaurrea)	HUIS Euskara Zerbitzua 1987
EIFE 2 Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina (OHO 5. maila)	HUIS Euskara Zerbitzua 1989
EIFE-3 Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina (OHO 2. maila)	HUIS Euskara Zerbitzua 1990
HINE. Hizkuntza idatziaren neurketa eskolan (OHO 8. maila)	HUIS Euskara Zerbitzua 1991
Lehen Hezkuntzako 6. mailaren ebaluazioa 1999	ISEI-IVEI, 1999
DBHko ebaluazioaren txostena 2000	ISEI-IVEI, 2000
Hizkuntzak eta bere ikaskuntza euskal hezkuntza sisteman. Lehen Hezkuntza.	ISEI-IVEI, 2004
Probaren hizkuntzak ebaluazioen emaitzetan duen eragina	ISEI-IVEI, 2004
PISA 2003. Ebaluazioaren lehen txostena	ISEI-IVEI, 2004
Euskararen B2 maila derrigorrezko irakaskuntzaren amaieran	ISEI-IVEI, 2005
Lehen Hezkuntzako ebaluazioa 2004. laburpen exekutiboa. Ondorioak eta hobetzeko proposamenak.	ISEI-IVEI, 2006

Gerora, beste ikerketa batzuk ere egin ditu ISEI-IVEIek, esate baterako, hemen beranduago aztertuko den *Emaitzen txosten orokorra eta aldagaien analisia, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila* (2010) edo *Emaitzen txostena eta aldagaien analisia, Lehen Hezkuntzako 4. maila* (2010). 2011. urtean, berriz, Hezkuntza Marko Hirueleduna abian jarri duten ikastetxeetan aritu dira ebaluazioak egiten, eta 2011-2012 ikasturtean zehar emango dituzte ikerketa honen emaitzak.

Orokorrean, aurreneko ikerketa hark eskainitako emaitza berak erakusten zituzten jarraian egindako ikerketek ere. B ereduak bilakaera positiboa izan zuen, pixkanaka emaitzak A eredukoetatik baino D ereduetatik gertuago zeuden. A ereduak, aldiz, ez zuen hobekuntza nabarmenik erakusten. Faktore eragilean artean irakaslearekiko erlazio-hizkuntza edo etxeko hizkuntza bezalakoek duten garrantzia ere gero eta nabarmenago ageri ziren. Etxetik erdaldunak ziren haurrek emaitza onak ematen zituzten B ereduan eta D ereduan, baina, orokorrean ez zuten etxetik euskaldunak zirenen edo ama-hizkuntza euskara zutenen maila bera eskuratzen. Bestalde, oso garbi gelditu zen ama-hizkuntza gaztelera zuten B eta D ereduetako ikasleek ez zutela euren gaztelania-mailan kalterik izaten. Halaber, hizkuntzaren erabilerak inguru soziolinguistikoarekin eta etxeko hizkuntzarekin duen erlazioa ere agerian gelditu zen.

Beraz, emaitza guztiak kontutan hartuta behin eta berriz ikus daiteke, txikitatik ikastetxean gaztelera jasotzen duten haurrek, ama-hizkuntza gaztelera izan ez arren, etxetik gaztelera jaso dutenen oso antzekoak direla. Ezin esan gauza bera, B ereduan eta batez ere, A ereduan ama-hizkuntza gaztelera duten eta euskara ikasten duten ikasleei buruz.

Hasieran ikusi dugun bezala, A ereduak eremu asko galdu du eta B eredu mantendu egin da. Hala ere, D eredu da nagusi gaur egun, eta jada ikastetxe askotan euskara da transmisio hizkuntza eta ez ikasgai hutsa soilik. Hori oso elementu garrantzitsua da hizkuntza eskuratzeko. Horrez gain, garrantzitsua da baita ere ikasleek eskola orduetatik kanpo erabiltzen duen hizkuntza euskara izatea ere: *ikaslearen erlazio-sarea (irakasleekin, idazkariarekin, lagunekin, etab.) euskarazkoa bada, askoz ere egoera hobean egongo da haur hori euskara bizi baten jabe egiteko* (Zalbide eta Izagirre, 2011: 41.or). Horregatik, ikastetxe askotan presentzia asko hartzen ari dira eskolaz kanpoko orduak euskaraz igaro ahal izateko taldeak; adibidez Tolosako Laskorain ikastolak duela urte askotatik martxan duen Euskaraz Bizi udalekua. Hala ere, ezin ahaztu behin eta berriz aipatu dugun eta berebiziko eragina duen faktorea: etxean erabiltzen den hizkuntza. Euskararen (eta edozein hizkuntzaren) transmisioaren giltza mendetan zehar izan dena, gurasoen eta haurren arteko hizkuntza, bultzatu eta zaindu beharra dago orain ere. Euskarak urte askotan zehar hau izan du bere salbazioa, eta berau izan da bizirik irauteko giltza. Azken batean, euskara etxeko erlazio-hizkuntza izateak, eguneroko erabilera jarraitua segurtatzen du eskolak ukitzen ez dituen hainbat esparrutan, berez sortzen dituen lotura afektiboez gain.

4.2 A, B eta D ereduko ikasleen hizkuntza-mailaren ebaluazioa

Emaitzak ikusteko modurik egokiena hezkuntza elebidunean izandako ebaluazioen emaitzak Hezkuntza Marko Hirueleduna abian jarri ondorengo emaitzekin alderatzea izango litzateke. Baina, lehenago aipatu bezala, ezinezkoa izan da marko hirueledunean 2010-2011 ikasturtean jasotako ebaluazioen emaitzak jasotzea. Ikasturtearen hasieran eta amaiera egin zituzten ebaluazioak, eta 2011. urteko irailetik aurrera hasiko dira emaitza horiek aztertzen. Gauzak honela, 2010. urtean ISEI-IVEI erakundeak egindako ikerketa batzuen ondorioak aztertuko dira hemen. Honela, A, B eta D ereduetako

ikasleek duten hezkuntza-maila (euskaran eta gazteleran) zer moduzkoa den ikusi, eta euskararen presentziaren arabera, euskararekiko izaten diren emaitzak alderatuko dira.

4.2.1 A, B eta D ereduetako ikasleen hezkuntza-mailaren ebaluazioa Lehen Hezkuntzako 4. mailan

2010.urtean ISEI-IVEI erakundeak ebaluazioen bi diagnostiko aurkeztu zituen. Bata *Emaitzen txostena eta aldagaien analisisa, Lehen Hezkuntzako 4. maila* da. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak zehaztu bezala, 2008-2009 ikasturtean zehar eta baita 2009-2010 ikasturtean zehar Ebaluazio diagnostiko bat garatu zuten Sailaren hiru zerbitzuen artean: Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI), Hezkuntza Ikuskaritzak eta irakasleei laguntza emateko zerbitzuak (*Berritzegune*).

Ikerketa lan honek ikasleen multzo beraren informazioa eskaintzen du derrigorrezko eskolatze-aldiko bi mailatan: Lehen Hezkuntzako 4. mailan, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako emaitzak aurrerago aztertuko ditut.

Ikasturte horretan, ISEI-IVEIk egindako ikerketak helburu zehatz batzuk zituen, txostenean bertan agertzen diren honako hauek zehazki (ISEI-IVEI, 2010: 6.or):

-Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleen hezkuntza-helburuen lorpen maila ezagutzea eta baloratzea.

-Hezkuntza-prozesuekin lotutako faktoreak eta aldagaiak, eta oinarrizko konpetentzien lorpenean eta garapenean eragiten duten testuinguruko faktoreak aztertzea.

-Ikastetxeek ikasleen arreta hobetzera eta egokiak diren oinarrizko konpetentziak lortzea bermatzera, eta hala baldin badagokio, aurreko ikasturteetan egindako jarduerak baloratu eta birbideratzera zuzendutako beharrezko neurriak eta programak antolatzeke balio duten informazio garrantzitsua eskaintzea.

-Ikastetxeetan gogoeta-prozesuak sustatzea, betiere, beren antolaketaren, funtzionamenduaren eta emaitzen hobekuntzan erantzukizunak baloratu eta beren gain har ditzaten.

-Hezkuntza-administrazioari beharrezko informazioa, objektiboa eta garrantzitsua eskaintzea, hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetzera zuzendutako erabakiak hartu ahal izateko.

-Familiei semearen/alabaren konpetentzien lorpen mailaren inguruko informazio garrantzitsua ematea.

-Hezkuntza-komunitateko kide guztien eta Euskadiko ikasleen errendimendua hobetzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren babesteko zerbitzuen ahaleginen lankidetzak eta integrazioa bultzatzea.

Ikus daitekeen bezala, helburuen artean daude ikastetxeek eta hezkuntza-sistemari beraien kalitatea hobetzen laguntzea. Nire ustez ere, bai ikastetxeek, bai hezkuntza-sistemak eta baita gurasoek ere oso kontutan hartu beharko lituzkete ikerketa hauetan jasotako emaitzak. Errealak baitira. Eta, beraien sistema hobetzeko den guztia kontutan hartzeko


modukoa da. Batez ere emaitzak urtetik urtera berdintsuak izaten direla kontutan hartuta, ondorioak irakurtzen eta barneratzen jakin behar dute.

Aipatzen ari garen txosten honek, ebaluatutako konpetentzietan, Lehen Hezkuntzako 4. mailan ikasleek lortutako emaitzen azterketa biltzen du, eta baita banakako edo testuinguruko zenbait aldagaik horietan duten eragina ere.

2010eko ebaluazioa aplikatzeko prozedurari dagokionez, aplikazioa Lehen Hezkuntzan egin zen 2010eko otsailaren 22 eta martxoaren 5 artean. Probak gutxi gora behera nolakoak izaten diren ulertzeko zenbait azalpen emango ditut jarraian. Proben eta galdera sorten aplikazio-lanak ikastetxetik kanpoko langileek egin zituzten eta haien kalitate-kontrolaren ardura Hezkuntzako Ikuskaritzarena izan zen.

Ikastetxeetan probak bi egunez jarraian aplikatu zituzten. Horien iraupena, gutxi gorabehera, egunean hiru ordukoa izan zen guztira. Egun haietako bakoitzean, ikasleek errendimenduko bi probari erantzun zieten. Euskarazko eta Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziari dagozkion bi probak egun ezberdinetan egin zituzten. Horrez gain, egun horietako batean, ikasleek beren buruari, familiari eta eskolari buruzko galdera-sorta osatu behar izan zuten.

2. Grafikoa. ED10-LH4. Ikastaldeak hizkuntza-eredu bakoitzengan. Ehunekoak



(Iturria: ISEI-IVEI, 2010)

Ikerketan guztira 522 ikastetxek parte hartu zuten, horietatik 434 (%83,1) eredu bakarra zuten ikastetxeak ziren, 86 (%16,5) bi eredu zituztenak, eta 2 (%0,4) hiru eredu zituztenak. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikastetxeetako talde kopuruari dagokionez, 77 (%7,8) A eredukoak ziren, B eredukoak 281 (%28,6) eta D eredukoak 624 (%63,5). 2009-2010 ikasturtean Lehen Hezkuntzako 4. mailan zeuden ikasleen kopurua 19.036koa zen, ikastetxeek emandako zerrenden arabera.

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia

Hau da euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziari ISEI-IVEIek ematen dion definizioa: *hizkuntza euskaraz erabiltzeko trebetasuna da, hau da, kontzeptuak,*

pentsamenduak, sentipenak, gertakariak eta iritziak ahozko zein idatzizko diskurtsoen bidez adierazteko eta interpretatzeko trebetasuna eta, baita ere, gizarte eta kultura testuinguru posible guztietan hizkuntzaren bidez elkarreragitekoa (ISEI-IVEI 2010: 19.or). Euskarazko hizkuntza-komunikazio hau lortzen ote zuten jakiteko hiru konpetentzia neurtu ziren ikasleen artean: entzumena, idazmena eta irakurmena.


Euskarazko konpetentzia hori hiru mailatan neurtzen da: hasierako maila, erdi-maila eta maila aurreratua. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako errendimendu mailen deskribapena honako da, hau da, zehaztapen hauen arabera sailkatzen dira ikasleen gaitasunak maila batean ala bestean (ISEI-IVEI, 2010: 20-21.or):

Hasiera maila: Maila honetako ikasleek nolabaiteko zailtasunak dituzte testuak euskaraz ulertzeko. Ahozko eta idatzizko testu hurbiletan (elkarrizketak, jakinarazpen laburrak) informazio garrantzitsua (datuak, batez ere) identifikatzeko gai dira. Era berean, ikasleek testu laburretan eta argietan zentzu orokorra eta ideia nagusiak identifikatzen dituzte. Zenbait kasutan, eta irudien laguntzarekin, edukia interpretatzen dute, inferentzia zuzenak egiten dituzte eta ohiko erabilerako testuen generoa ezagutzen dute. Bestalde maila honetako ikasleek testuak osatu gabe idazten dituzte euskaraz, eta batzuetan ez dute eskatutako komunikazio-helburua lortzen. Batzuetan, testuetan oso egituratuta ez dauden eta erroreak dituzten datuak eskaintzen dituzte.

Erdi-maila: Hasierako mailan deskribatutako zereginenez gain, erdiko mailan dauden ikasleek trebeziak egiten dituzte ulermen-ariketak (ahozkoa eta idatzizkoa). Ahozko eta idatzizko hainbat testutan, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizteko gai dira. Maila honetako ikasleek inferentziak egiten dituzte eta edukia beren ideiekin bat etorritz interpretatzen dute. Dagokien eskola mailako hiztegia eta ohiko adierazpenak ezagutzen dituzte, eta era berean, igorlea eta testuaren generoa identifikatzen dituzte. Bestalde, maila honetako ikasleek testu sinpleak eta beren interesetik hurbil daudenak idazten dituzte (narratioak, esate baterako). Testuaren helburua kontuan hartzen dute, erregistro egokia aukeratzen dute, informazioa oinarritzko moduan egituratzen dute eta beren eskola mailako gramatikako, ortografiako eta lexikoko arau gehienak errespetatzen dituzte.

Maila aurreratua: Hasierako eta erdiko mailan deskribatutako zereginenez gain, maila aurreratuan dauden ikasleek zereginik konplexuenak ere ebatzen dituzte eta zailtasunik handieneko testuak erabiltzeko gai dira. Helburua ezagutzen dute eta hainbat alorretako testuetan (familiarak, akademikoak, komunikabideak) eduki zehatzak identifikatzen dituzte. Era berean, maila honetako ikasleek ondo egiten dituzte zuzeneko eta zeharkako inferentziak, testuak laburtzen dituzte eta erabilitako hiztegia ezagutzen dute. Maila honetako ikasleek, idatzizko testuak egiteko, testuaren helburua kontuan hartzen dute, eta erregistro egokia eta hizkuntza-baliabide anitzak erabiltzen dituzte. Lortu nahi den helbururako garrantzitsua den informazioa aukeratzeko gai dira eta gramatika-, ortografia- eta lexiko-arauak errespetatzen dituzte.

6. Grafikoa. ED10-4. Ikasleen ehunekoak erredimendu mailen arabera *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*




(Iturria: ISEI-IVEI, 2010)

Datuak orokorrean aztertuz gero, LHko 4. mailako ikasleen % 27k hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menderatzen dituela ikus daiteke. Ikasleen ia %44 konpetentziako erdiko mailan dago, eta %29k konpetentziako maila aurreratuari dagozkion lan konplexuagoak gauzatzea lortzen du.

Ikasleen %73k Euskarazko konpetentzia maila ertainean edo aurreratuan dauden arren, ezin ahaztu %29a soilik direla maila aurreratua dutenak.

7. Grafikoa. ED10-LH4. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera *euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako dimentsioetan*




(Iturria: ISEI-IVEI, 2010)

Konpetentzia bakoitzean ikasleek duten euskara-mailari begiratzuz gero, hasierako maila %29koa da hiru dimentsioetan, hau da, entzumenean, irakurmenean eta idazmenean. Maila aurreratuan, irakurmenak du ehunekorik altuena, %35koa, hain zuzen ere, eta idazmenaren dimentsioaren nahiko antzekoa da, %32koa. Entzumena, maila aurreratuan, %18ra iristen da, eta erdiko mailan ikasleen %50era iristen da.

Hiru dimentsioak ikastetxe publikoa edo itunpekoa den kontutan hartuta aztertuz gero, ikus daiteke bai ikastetxe publikoetan eta baita itunpekoetan ere A ereduko emaitzak gainerako ereduetan baino apalagoak direla dimentsio guztietan. A ereduko itunpeko eta publikoen artean, itunpekoak emaitza hobeak lortu zituen.

Emaitza positiboei begiratzuz gero, D ereduiko ikastetxe publikoak eta itunpekoak dira emaitza onenak lortu zituztenak. Era berean, D ereduiko itunpeko ikastetxeetako emaitzak nabarmen altuagoak dira. 2009ko datuetan ere emaitza bera ikus zitekeen.

9. Grafikoa. ED10-LH4. Ikasleen ehunekoa errendimendu-maila bakoitzean euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian



(Iturria: ISEI-IVEI, 2010) Oharra: grafikoa akats bat dago, 3. lerroan ikastetxeen eredu D publikoa jarri beharrean A publikoa jartzen du.

Geruzak errendimendu mailen arabera aztertzeak agerian jartzen ditu Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren hasierako maila gaintzen ez duten A geruza publikoko (%98) eta itunpeko A geruzako (%78) ikasleen ehuneko altuak. B geruza publikoan, ikasleen %43 ez da hasierako maila gaintzera iristen. D geruza publiko eta itunduek biltzen dute ikasleen ehunekorik altuena maila aurreratuan (%33 D eredu publikoan eta %43 itunpeko D eredu).


Emaitza hauek eta beste batzuk kontutan hartuta aipatutakoez gain zenbait ondorio atera daitezke. D ereduiko ikasleek (264 puntu) soilik gaintzen dute Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren batez besteko orokorra (254 puntu). B eredu, batez bestekoa 247 puntukoa da, eta A eredu, berriz, 194 puntukoa. Beraz, ikasleek euskaraz lortu beharko luketen hizkuntza-mailari begiratzuz gero, esan daiteke D ereduok lortzen dutela, lortu beharreko hizkuntza-maila.

Zenbaitetan aipatu dugu ikasleen ama-hizkuntza edo etxeko hizkuntzak eragin handia duela ikasleen hizkuntzaren jabetzan, eta hori bera erakusten du ISEI-IVEIren ikerketak ere. Etxeko hizkuntza euskara duten ikasleek, etxeko hizkuntza gaztelania edo besteren bat duten ikasleek baino emaitza askoz hobeak lortu zituzten. Etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen % 46k errendimenduko maila aurreratua lortu dute euskaraz.

Gaztelerako hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia

ISEI-IVEIek honela definitzen du gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia: *Gaztelaniaz hizkuntza erabiltzeko gaitasuna da, hau da, kontzeptuak, pentsamenduak, sentimenduak, gertaerak eta iritziak adierazteko eta interpretatzeko gaitasuna, ahozko eta idatzizko diskurtsoen bidez, eta izan daitezkeen testuinguru sozial eta kultural guztietan hizkuntza mailan elkarreragiteko* (ISEI-IVEI, 2010: 39.or). Gazteleraz ere, hiru dimentsiotan dago neurtua: irakurmena, idazmena eta entzumena.


32. Grafikoa. ED10-LH4. Ikasleen ehunekoak errendimendi mailen arabera Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian



(Iturria: ISEI-IVEI, 2010)

Datu orokorren arabera, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen %20k hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menderatzen zituztela ikus zitekeen. Ikasleen ia %46 kompetentziako erdiko mailan zegoen, eta %34k kompetentziako maila aurreratuari zegozkion lan konplexuagoak gauzatzea lortzen du. Ikus daiteke ikasleen ehuneko handiena erdi-mailan geratu zela; hala ere, maila bakoitzeko kopuruei begiratuz gero, ikus daiteke ikasleen %20a soilik dagoela hasierako mailan.

35. Grafikoa. ED10-LH4. Ikasleen ehunekoa errendimendu-maila bakoitzean gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian geruzen arabera



(Iturria: ISEI-IVEI, 2010)

Espero ez zitekeen datua bada ere, emaitzek argi erakusten dute A eredu publikoko ikasleek gainerako ereduak baino emaitza baxuagoak eskuratu zituztela. B eta D ereduko ikastetxe publikoek, berriz, emaitza antzekoak lortu zituzten; B ereduko

emaitzak bi puntu hobeagoak zirelarik. Itunpeko A ereduiko ikastetxeak dira emaitza onenak jasotzen dituztenak gazteleraz. Itunpeko B eta D ereduiko ikastetxeek edozein eredutako ikastetxe publikoek baino emaitza hobeagoak lortu zituzten. Eta, itunpeko ikastetxe horietan D ereduak lortu zituzten emaitzarik txarrenak.

Etxeko hizkuntzari dagokionez, euskara ez duten (gehienek gaztelania) ikasleek 260 puntu lortu dituzte Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian; etxeko hizkuntza euskara dutenena baino puntuazio nabarmen handiagoa, horiek 245 puntuko batez bestekoa lortu baitute.


4.2.2 A, B eta D ereduetako ikasleen hizkuntza-mailaren ebaluazioa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila

2008-2009 ikasturtean eta 2010. urtean LH 4. mailako ikasleen ebaluazioa egiteaz gain, DBHko 2. mailako ikasleen ebaluazioa ere egin zuten ISEI-IVEIekoek. Gero, ikerketa horien ebaluazio txostena argitaratu zuen Eusko Jaurlaritzak. Jarraian, DBH 2. mailako ikasleen emaitzak baloratuko ditut, eta bide batez, LHkoekin alderatzeko aukera ere izango dut.

Guztira 333 ikastetxek parte hartu zuten ebaluazio honetan, bertan 858 talde zeuden eta guztira 18.021 ikasleren hizkuntza-maila aztertu zen. 333 ikastetxetatik 227k (%68,2) eredu bakarra zuten martxan, 95ek (%28,5) bi eredu zituzten eta 11 ikastetxek (%3,3) hiru ere zituzten.

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia

2. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Ikastaldeak hizkuntza-eredu bakoitzean. Ehunekoak.



(Iturria: ISEI-IVEI, 2010)

Eredu bakoitzari dagokien ikasle kopuruei dagokienez, DBHko 2. mailan, 132 talde zeuden A ereduan (talde guztiak kontuan hartuta, %15,4); B ereduan, aldiz, 243 talde zeuden (maila horretan dauden talde guztien %28,3) eta D eredua 483 taldek osatzen zuten (%56,3).

ISEI-IVEIek maila honetan euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia honela definitzen du: *Euskaraz hizkuntza erabiltzeko gaitasuna da, hau da, kontzeptuak, pentsamenduak, sentimenduak, gertaerak eta iritziak adierazteko eta interpretatzeko gaitasuna, ahozko eta idatzizko diskurtsoen bidez, eta izan daitezkeen testuinguru sozial eta kultural guztietan hizkuntza mailan elkararreragiteko* (ISEI-IVEI 2010: 19.or).

Testuan zehar hasierako maila, erdi-maila eta maila aurreratuari buruz hitz egingo dudanez, komeni da jakitea ISEI-IVEIek nola deskribatzen dituen hiru mailak.

Hasierako maila: Maila honetako ikaslea erabilera-esparru askotariko ahozko zein idatzizko testuen esanahi orokorra eta xedea antzemateko gai da, era argian adierazita ageri baldin badira. Testu errazetako lehen eta bigarren mailako ideiak bereizten ditu, era konplexuan adierazita ageri ez badira. Informazio zehatza eta esplizitua identifikatzeko gai da, baita testuko pasarte batetik inferentzia zuzenak egiteko edo ondorioak ateratzeko ere. Testuaren eta ezagupen pertsonalaren arteko erlazio sinpleak egiteko gai da. Idazmenari dagokionez, ikaslea testu errazak idazteko gai da, gutxieneko hitz kopurura heltzeko arazoak izan ditzakeen arren. Ideiak antolatze oso egitura sinpleak erabiltzen ditu, eta batzuetan, testuaren xedea lortzeko ez dira egokiak. Erabiltzen duen erregistroa ez da oso egokia. Kohesioari dagokionez, ez ditu hizkuntza-baliabideak erabiltzen, adierazpen maila eskasa da, eta hiztegian eta ortografian zailtasunak ditu.


Erdi-maila: Maila honetako ikaslea askotariko erabilera esparruetan ahozko zein idatzizko testuetako pasarteak laburtzeko gai da, baita testuari izenburua jartzeko ere. Nolabaiteko zailtasuna duten testuetan lehen eta bigarren mailako ideiak bereizten ditu. Egin beharreko lanerako informazio garrantzitsua aurkitzen du eta testuaren eta ezagupen pertsonalaren arteko erlazio sinpleak egiteko gai da. Testuko pasarte batetik inferentzia zuzenak egiteko edo ondorioak ateratzeko gai da. Idazmenari dagokionez, ikaslea nolabaiteko konplexutasuna eta luzera duten testuak idazteko gai da. Emandako komunikazio-egoerara moldatzen da. Testu mota identifikatzen eta garatzen eta gaiak argi eta koherentziaz adierazten ditu, eta testuaren xedea betetzen du. Testuaren kohesiorako egokiak diren hizkuntza-baliabideak erabiltzen ditu gehienetan. Adierazpen maila eta lexikoa onargarriak dira; gramatika- eta ortografia-akatsak ez dira ugariak eta ez dute ulergarritasuna oztopatzen.

Maila aurreratua: Maila honetako ikaslea erabilera-esparru askotariko ahozko zein idatzizko testuak ulertzeko gai da, baita testuaren atalen arteko erlazioak aurkitzeko eta testuari izenburua jartzeko ere. Lehen eta bigarren mailako ideiak bereizten ditu edozein motatako testuetan. Aurretiaz agindutako lan bat egiteko informazio garrantzitsua, inplizitua zein esplizitua, aurkitzen du. Testuko informazioa eta ezagupen pertsonala erlazionatzen ditu. Informazioa eta iritzia bereizteko gai da, baita testuaren edukiaren aurrean jarrera argia erakusteko ere. Bestalde, ongi egituratutako testuak idazteko gai da, bai koherentziaren, bai kohesioaren ikuspuntutik. Emandako testua zein motatakoa den identifikatu eta egoki garatzen du. Erregistro egokia erabiltzen du komunikazio-egoerarako. Ideiak argi eta koherentziaz adierazten ditu, eta testuaren xedea betetzen du.

Hizkuntza-baliabideak egoki eta jariakortasunez idazten ditu. Adierazpen maila altua da eta erabiltzen duen lexikoa, egokia.

LH 4. mailako ikasleekin egin zuten bezala, DBH 2. mailako ikasleei ere hiru konpetentzia neurtu zitzaizkien: entzumena, irakurmena eta idazmena.


5. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian.



(Iturria: ISEI-IVEI, 2010)

Datuak orokorrean aztertuz gero, ikus daiteke EAEko DBHko 2. mailako ikasleen %33,5ek hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menderatzen dituela. Ikasleen %42 inguru erdiko mailan daude, eta %24 inguruk konpetentziako maila aurreratuari dagozkion lan konplexuagoak gauzatzea lortzen du. Beraz, esan daiteke DBHko 2. mailako Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ikasleen %66,5 erdiko mailan eta maila aurreratuan dagoela.


6. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa hizkuntza-eredu bakoitzean errendimendu-mailen arabera euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian.



(Iturria: ISEI-IVEI, 2010)

Datuak ereduak aztertuz gero, berriz, datu oso esanguratsuak ikus daitezke. Izan ere, A eredian, esate baterako, ikasleen hiru laurden baino gehiagok ez du hasierako maila gainditzen eta %3 soilik dago konpetentzia honetako maila aurreratuan. B eredian, ikasleen ehuneko %37 inguru hasierako mailan daude eta %19,3 inguru maila aurreratuan kokatuta daude. D eredian, hasierako mailako ikasleen ehunekoa %22,5koa da eta %31 inguruk maila aurreratura eskuratu du.


7. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako dimentsioetan.



(Iturria: ISEI-IVEI, 2010)

Esan bezala, ikasleek hiru kompetentzian erakutsi behar zuten zekitena, eta kompetentziak ehunekoetan neurtuz gero, ikus daiteke entzumeneko eta idazmeneko hasierako mailan daudela ikasleen ehunekorik altuenak dituzten dimentsioak, %36 inguru. Hala eta guztiz ere, maila aurreratuari begiratuz gero, esan daiteke entzumena daudela emaitzarik onenak; izan ere, maila horretan ikasleen ehunekorik altuena biltzen du (%29) eta ikasleen %64k hasierako maila gaindi dezaten lortzen du. Idazmena da emaitzarik baxuenak dituen kompetentzia; ikasle kopuru handiagoak biltzen ditu hasierako eta erdiko mailan (% 88,5), eta % 11,5ek soilik lortzen ditu maila aurreratuko gaitasunak.

12. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa errendimendu-maila bakoitzean euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian.



(Iturria: ISEI-IVEI, 2010)

Ikasleen emaitzak eredu eta ikastetxe motaren arabera (publikoa edo itunpekoa) ere aztertu zituzten ISEI-IVEIekoek. Orokorrean esan daiteke A eredu geruzetako emaitzak B ereduak baino nabarmen baxuagoak direla, eta horiek, aldi berean,

D ereduakoetakoa baino baxuagoak. Ondorioz, DBH 2an euskara-mailari dagokionez, D eredu ikastetxeak dira emaitza onenak lortzen dituztenak. Bestalde, ikastetxe publikoetako emaitzak itunpeko ikastetxetakoak baino nabarmen apalagoak dira hizkuntza-eredu guztietan.

Benetan adierazgarria da A eredu ikastetxeetan euskarako hasiera mailan dauden ikasleen kopurua, benetan altua baita; A eredu ikastetxe publikoetan %95 baino gehiago, eta itunpekoetan %73 ingurukoa. B eredu ikastetxe publikoetako ikasleen erdiak, eta B eredu itunpeko ikasleen %34 hasierako mailan kokatzen dira. D ereduan, aldiz, ikasleen ehunekorik txikienak hasierako mailan (%25 D publikoan eta %18 itunpekoan) aurki daitezke, eta ehunekorik handienak maila aurreratuan (%28 D publikoan eta ia %36 itunpekoan). A eredu emaitzak benetan kezkagarriak dira, baina, orokorrean ere ezin esan emaitza bikainak direnik. D eredu ikastetxeetan ere ia erdiak erdi-mailan kokatzen baitira.


Ikasleen etxeko hizkuntza aztertzean, etxeko hizkuntza euskara duten ikasleek konpetentzia honetan 281 puntu lortu dituztela egiaztatzen da, eta etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den besteren bat dutenek 252 puntuko errendimendua lortu dute. Aldea benetan adierazgarria da. Etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den besteren bat duten ikasleek, berriz, hasierako mailan ehuneko altuagoak eta maila aurreratuan ehuneko baxuagoak biltzen dituzte. Eta, hasierako mailan kokatzen da etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den besteren bat duten ikasleen %38, eta ehuneko hori erdia baino gutxiagora murrizten da etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen kasuan (%15). Maila aurreratuan, etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen ehunekoak etxeko hizkuntza besteren bat dutenen kopurua bikoizten du (%40,1 eta %19,8). Beraz, esan daiteke etxeko hizkuntzak eragin nabarmena duela ikasleen emaitzengan, euskararen kasuan, behintzat.

Gaztelerako hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia

ISEI-IVEIek horrela definitzen du bere txostenean gaztelerako hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia: *Gaztelaniaz hizkuntza erabiltzeko gaitasuna da, hau da, kontzeptuak, pentsamenduak, sentimenduak, gertaerak eta iritziak adierazteko eta interpretatzeko gaitasuna, ahozko eta idatzizko diskurtsoen bidez, eta izan daitezkeen testuinguru sozial eta kultural guztietan hizkuntza mailan elkarreragiteko* (ISEI-IVEI, 2010: 38.or).

Hemen ere hiru konpetentzia neurtu zituen ISEI-IVEI erakundeak: entzumena, idazmena eta irakurmena.


31. grafikoa: ED10. DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako errendimendu mailen arabera



(Iturria: ISEI-IVEI, 2010)

Ematza orokorreki begiratzuz gero, ikus daiteke ikasleen %88 inguru erdiko mailan eta maila aurreratuan dagoela. Hau da, ikasleen gehiengo ia osoak gaztelera menderatzen duela. EAEko DBHko 2. mailako ikasleen %12k hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menderatzen ditu. Ikasleen %59 inguru erdiko mailan dago, eta %29 inguruk maila aurreratuari dagozkion trebezia konplexuagoak menderatzen ditu.


32. grafikoa: ED10. DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako 3 dimentsioetan.



(Iturria: ISEI-IVEI, 2010)

Euskaraz egin bezala, gaztelera ere hiru konpetentzia neurtu ziren: entzumena, ulermena eta idazmena. Konpetentzia hauek aztertuz gero, ikasleen %14 inguru konpetentzia bakoitzeko hasierako mailan kokatzen dela ikus daiteke. Ikasleen %55 eta %61 artean erdiko mailan kokatzen da; zehazki, idazmenak biltzen du ehunekorik altuena (%61,2). Maila aurreratuan dagoen ikasleen ehunekoa %25 eta %31 artekoa da. Maila aurreratuan, entzumenean ikasleen %30,8 kokatzen da.

34. grafikoa. ED10-DBHko 2. maila. Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako errendimendua geruzen arabera.



(Iturria: ISEI-IVEI, 2010)

Ikastetxe motaren arabera (publikoa edo itunpekoa) eta eredu bakoitzaren arabera, emaitza ezberdinak nabarmentzen dira. Esate baterako, euskaraz gertatu den bezala sare publikoko ikastetxeen emaitzak apalagoak dira itunpekoek lortu dituztenak baino. Itunpeko ikastetxeen artean A eta B ereduko emaitzak oso antzekoak dira (nahiko onak). D eredu publikoko ikastetxeek, sare publikoko A eta B ereduko ikastetxeek baino emaitza askoz hobek lortu zituzten. Hala ere, itunpeko ikastetxeetan egoera ez da berdina, aurkakoa gertatzen da.

Emaitzak zehatzago aztertuta ikus daiteke, A geruzako ikasleen %34 inguru gaztelerako hizkuntza-mailaren hasieran dagoela, eta gainera, %11 inguruk soilik lortu zuela maila aurreratua. EAEko DBHko 2. mailako ikasleen %88 erdiko mailan eta maila aurreratuan kokatzen direla kontutan hartuta, A geruza publikoak izan ezik, gainerako geruzak %84tik (B publikoa) %91ra (itunpeko B) bitarte doaz.

Etxeko hizkuntzari begiratuz gero, kontutan hartu behar da DBH 2ko ikasleen artean %20k baino gehiagok euskara duela etxeko hizkuntza eta %77 inguruk ez duela euskara etxeko hizkuntza. Familia euskalduneko ikasleek 248 puntu lortu dituzte gazteleran, eta familian gaztelaniaz edo bete hizkuntza batean hitz egiten dutenek 254 puntu. Aldea hamar puntutik gorakoa da. Etxean euskaraz hitz egiteko joerarik ez duten ikasleen %88k maila aurreratua edo erdi-maila lortu zituzten.

4.2.3 A, B eta D ereduko ikasleen hizkuntza-maila aztertu ondoren atera daitezkeen ondorioak

ISEI-IVEIek aztertutako bi mailatan aldeak nabarmenak dira. LH 4. mailako ikasleen artean hizkuntza-maila ez da hain ezberdina eta aldeak ez dira handiak, baina DBH 2. mailako ikasleen artean alde nabarmenak daude, eta euskararen eta gazteleraren arteko ezberdintasuna ere handia da.

Hasteko, LH 4. mailan jada alde handia nabarmentzen da emaitza orokorretan euskararen eta gaztelaren artean. Gaztelaren hasiera mailan %19,8 soilik daude, eta euskararen hasierako mailan ikasleen %29, 2 kokatzen da. Hau da, %10eko igoera du euskararen. Aldiz, maila aurreratuan gaztelaren %33 inguru dauden bitartean, euskararen %29 daude, eta hemen aldea ez da hain handia.

Ikerketan aztertu ziren hiru konpetentziei dagokienez LH 4. mailan euskararen ikasleen %28 inguru dago hasierako mailan, gaztelera %14 soilik denean. Erdi-mailari dagokionez euskararen %39 eta %52 artean daude, eta gaztelera %55a da txikiena, euskarakoa baino altuagoa. Euskararen maila aurreratuan kopururik altuena ulermenean edo irakurmenean kokatzen da, ikasleen %34,8arekin. Gaztelaren, aldiz, entzumenean dago maila aurreratuko ikasle kopururik altuena (%34,9).

Ikastetxe motari eta ereduari begiratuta emaitza eta ondorio zehatzagoak ateratzen dira. Espero zitekeen bezala, euskararen itunpeko ikastetxeetako D ereduko ikasleek lortzen dituzte emaitzarik onenak (%43 maila aurreratuan) eta gaztelaren itunpeko A ereduko ikasleak dira emaitzarik onenak eskuratu zituztenak (%48, 3 maila aurreratuan). Baina, hemen ere ikus daiteke emaitzarik onenak alderatuta ikasleen ehunekoa handiagoa dela gaztelaren euskararen baino. Emaitzarik txarrenak, berriz, euskararen A ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek dira, %97,5 hasierako mailan daudelarik; gaztelaren, itunpeko D eredukoak dira txarrenak, baina inondik inora ez dira euskararen A eredukoak direnak bezain txarrak, ikasleen %19a soilik baitago hasiera mailan.

Etxean erabiltzen den hizkuntzak ere garrantzi handia du, izan ere, bai euskararen eta baita gaztelaren ere etxean erabiltzen duten hizkuntzetan lortzen baitituzte emaitzarik onenak ikasleek.

Hortaz, ikus daiteke LH 4. mailan A ereduko ikasleek euskara oso emaitza eskasak lortzen dituztela, hau da, A ereduak ez duela ikasleen euskalduntzea bermatzen; eta aldiz, gaztelaren D ereduko ikasleek lortzen dituzten arren emaitzarik txarrenak, ez dira inondik inora hain txarrak, alderantziz, nahiko onak dira kontutan hartuta oraindik ikasle gazteak direla.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek badaramatzate urte batzuk ikasten, eta etxekoa ez duten hizkuntza ikasten ere urte asko daramatzate. Beraz, pentsatzekoa da jada bai hizkuntza batean eta baita bestean ere ikasleen emaitzak txukunak izango direla.

Emaitza orokorrak aztertuz gero, ordea, ikusi daiteke hasierako mailan dauden ikasleen ehunekoa handiagoa dela euskararen gaztelaren baino. Badirudi eredu guztietako ikasleen gehiengoak erdi-mailan eta maila aurreratuan dagoela; euskara-mailari dagokionez ere gehiengoak erdi-mailan eta maila aurreratuan badaude ere, hasiera mailako ikasleen ehunekoa bikoitza baino gehiago da (gaztelera %12 eta euskararen %33,5).

Ikasleengan neurtu ziren konpetentziak alderatuz gero ere ikus daiteke euskara galtzen ateratzen dela berriro. Euskararen hasiera mailan eta erdi-mailan ikasleen %88a kokatzen da, eta gaztelaren maila aurreratuan daude ikasleen %31. Euskaraz okerrean landuta dituzten gaitasunak entzumena eta idazmena dira, hasiera mailan ikasleen %35 inguru daudelarik. Emaitzarik onenak, hala ere, entzumenean daude maila aurreratuan ikasleen %29 dagoelarik. Emaitzarik okerrean idazmenean daude. Gaztelaren, soilik, ikasleen

%14a dago hasiera mailan. Eta, mailarik altuena, euskararen ez bezala, idazmenean daukate.

Ikastetxe motak eta ereduak aztertuta, hasierako teorietako bat guztiz betetzen dela ikus daiteke. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak amaitzeko bi ikasturte falta zaizkien ikasleen ehuneko handi batek ez du euskara menderatzen. Benetan larriak eta adierazgarriak dira A ereduko ikastetxe publikoetako emaitzak, ikasleen %96,3 euskararen hasiera mailan baitago oraindik ere. Eta, itunpekoetan ere emaitza hobeagoak dauden arren A ereduko itunpeko ikastetxeetako ikasleen %73,5 euskararen hasiera mailan kokatzen da. Baina, larriena da D ereduan ere ikastetxe publikoetan %47 eta maila aurreratuan %28 daudela, eta itunpeko ikastetxeetan %46, 1 erdi-mailan eta %35,7 maila aurreratuan daudela. Hau da, D ereduko ikastetxe publikoetan ere oraindik ikasleen %25a hasiera mailan dagoela. Aldiz, gazteleran ikasleen kopuru handienak erdi-mailan daude. Eta, benetan paradoxa bat den arren emaitzarik baxuenak A ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek eskuratzen dituzte ikasleen %34 hasiera mailan dagoelarik. Emaitzarik onenak itunpeko A ereduko eta B ereduko ikastetxeek lortzen dituzte. Bestalde, D eredu publikoko emaitzak hobeak dira B publikokoak baino.

Ondorioz, emaitza guzti hauek aztertu ondoren, Sakontze Egitasmoan behin eta berriz zalantzan jartzen zena egiaztatu da, hau da, A eta B ereduak ez dituzte ikasleak inondik inora euskalduntzen; eta D ereduan ere ez da %100ean ikasleen euskalduntzea lortzen. Gazteleran, aldiz, ikastetxe publikoen artean D eredukoak lortzen dituzte emaitzarik onenak, nahi zeta itunpeko A ereduko ikastetxeak izan gazteleran maila altuena duten ikasleak.

5. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Hasierako helburua eta helburu nagusia Hezkuntza Marko Hirueledunak euskara bezalako hizkuntza gutxitu batean izan ditzakeen ondorioak aztertzea zen; era berean, ikasleen euskalduntze prozesuan izan zezakeen aztertzea ere helburu zen.

Ikerketan zehar ikusi ahal izan da eta lan honetan bildutako hainbat iritzik honela esan dute, badirudi kezka nagusia ikasleen euskalduntzea bermatzen duen eredia den ala ez ikustea dela. Kezka hori hezkuntza elebiduneko A, B eta D ereduko ikasleen euskalduntze ezatik sortutakoa da, eta hori benetan hala zen ala ez jakiteko ISEI-IVEI erakundeak egindako ikasleen hizkuntza-maila aztertzen zuten ebaluazioen emaitzak ere aztertu ditugu lan honetan.

80. hamarkadaren hasieran euskal hezkuntzan eredu bakarra izatetik, elebiduna izatera pasa ginen. Euskal Autonomia Erkidegoan A, B eta D ereduen artean aukera zitekeen. Eredu hauek martxan jarri zirenean, A eredia zen nagusi eta D ereduak zuen ikaslerik gutxien. Hala ere, denborarekin gauzak asko aldatu dira, eta gaur egun D eredia da ikasle eta gurasoen gehiengoak aukeratzen duena, B eredia mantendu egin da, eta A eredia nabarmen jaitsi da.

Ikusi ahal izan da, hezkuntza elebidunak jada kritika asko izaten zituela eta dituela ikasleen euskalduntzea bermatzen ez duelako, hainbat eragilek behin eta berriz eredu euskaldun bakar bat ere eskatu izan dute (adibidez, Sortzen Ikasbatuazek: berria.info 2010/01/19).

2010-2011 ikasturtean Hezkuntza Marko Hirueleduna jarri zen martxan, eta honek hautsak harrotzea lortu du. Hainbat alderdi politikoren artean kezka sortu du, eta euskal sindikatu eta eragileen gehiengo batek jarrera guztiz aurkakoa erakutsi du. “Eraso” edo “inposaketa” bezala ere definitu dute; euren ustez “euskara bigarren mailako hizkuntza izatetik hirugarren mailakoa izatera pasako litzateke” (Sortzen Ikasbatuazek esku orri batean). Era berean, euskararen egoera diglosikoa kontutan ez dela hartzen eta euskalduntzen ez duten ereduetan oinarrituta dagoela uste dute.

Euskalduntzea bermatu ahal izateko eredu malguagoa ere eskatu izan da zenbaitetan, badirudi EAE guztirako eredu uniforme bat eta bakarra sortzea, agian, ez dela hain ideia ona. Eta, horregatik ingurune soziolinguistikoa kontutan hartzen duen eredu euskaldun eta eleanitz malgu bat eskatzen dute (berria.info 2011/01/19). Ezin delako metodo bera, sistema bera eta ordu kopuru bera erabili Barakaldon edo Tolosan. Ikasleen beharra keta ahulguneak ezberdinak izango baitira. Hau marko hirueleduna abian duten ikastetxeek eurek ere ikusten dute.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak, ordea, Hezkuntza Marko Hirueledunak atzera bueltarik ez duela esan ondoren, 2011-2012 ikasturtean guztira 118 ikastetxek hartuko dute parte proiektuan, 40 aurreko ikasturtetik martxan dutenak eta 78 berriak.

Hemen behin eta berriz, aipatutako kritika horien arrazoia ikasleen euskalduntze prozesua dela eta egin izan direla esan ondoren, egokiena arrazoi hauek benetan betetzen diren ala ez jakitea zen. Eta, ISEI-IVElek egindako ikerketan ikusi ahal izan da ikasleen euskalduntzea ez dela inondik inora bermatzen, eta gazteleran jasotako emaitzak, berriz, askoz hobeak direla ikusi ahal izan da.

Batez ere A ereduan ikasleen %98 inguruk Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan oraindik ez dute hasiera maila gainditzen. Hau da, beraien bizitzako gutxienez 10 urte euskara ikasten eman arren, ez dira hasiera mailatik pasatzen. Paradoxa da, ordea, gazteleran ere ikastetxe publikoetako A ereduko ikasleen emaitzak izatea txarrenak; ikerketa horretan, beraz, ikus daiteke D ereduek gazteleran ez dituztela emaitza txarrak lortzen.

Guzti hau ikusita gure ondorioa honakoa da: hezkuntza Marko Hirueledunak eragin kaltegarria izan dezake euskara bezalako hizkuntza gutxitu batean; eta honela izango da, hainbat faktore kontutan hartzen ez badira. Esan bezala, hainbat aldagai hartu behar dira kontuan: etxeko hizkuntza, testuinguru soziolinguistikoa, harreman sareak, eskala soziala eta abar.

Bizi garen gizarte honetan argi eta garbi dago hizkuntzak aberastasun bat direla, eta gaur egun atzerriko hizkuntzak jakitea ia ezinbestekoa bilakatu da; baina, horren truke gurea alde batera utzi behar al dugu? Muga linguistikoek garapen kognitiborako duten eragina kontutan hartu behar da. Barne mundua osatzeko eta komunikatzeko hizkuntza aberastasunak duen garrantzia ez da ahaztu behar. Eta ondorioz garapen pertsonalerako, sozialerako eta komunikatiborako.

Euskara hizkuntza gutxitu bat da, eta bere egoera soziolinguistikoa ez da batere xamurra Euskal Herriko leku gehienetan. Urteetako ikerketek eta baita azkena egin direnek ere hezkuntza elebidunak ikasleak ez euskalduntzea dakarrela erakutsi dute, A ereduan emaitzak oso txarrak dira euskaran (eta ikastetxe publikoetan gazteleran ere bai). D ereduan, aldiz, euskararen kasuan emaitza nahiko onak (hala ere, hobeak izan zitezkeen) lortzen dira eta gazteleran ere ez dira atzera geratzen.

Kontutan hartu behar da, herririk euskaldunenean ere gazteleraren presentzia handia dela: irratia, telebista, internet, egunkariak... Gaztelerak presentzia handia eta indartsua dauka gizartean. Etxeko eta inguruneke hizkuntza euskara duen haur batek 10 urterako oso ondo menderatzen du gaztelera, etengabe gaztelera entzuten ari baita. Baina, ingelesa ere ezin dugu ahaztu, datozen urteetan gaztelerak bezainbesteko garrantzia eta zabalera izango duela. Hala ere, argi eta garbi dago ikasleek eleanitzak izan behar dutela, eta euskaraz gain gaztelera eta ingelesa ere ikasi behar dituztela.

Ikasleek eskolatik kanpo jasotzen duten hizkuntzak ere eragin handia dauka beraiek gerora egiten duten hizkuntzaren aukeraketan. Euskara eskolan soilik erabiliz gero, euskara gauza negatiboekin soilik lotuko dute, eta behin ere ez dute guztiz menderatuko. Eta, hizkuntza bat ez menderatzeak hizkuntza horrekiko aurkakotasun bat sortzea eragin dezake.

Horregatik, egokiena euskara oinarri duen hezkuntza eleanitz bat izango litzatekeela dirudi. Hezkuntza Marko Hirueledunak ez du bereizketarik egiten hizkuntzen artean, eta euskara, gaztelera eta ingelesa egoera berdinean baleude bezala jokatzeko du. Baina,

errealitate linguistikoa ezin da albo batera utzi, eta euskararen egoera benetan kontutan hartzekoa da, euskarak bizirik irautea nahi badugu. Haurren eta gazteen garapen pertsonala hezkuntzaren bitartez ahalik eta egokiena izatea nahi badugu alde batetik eta bestetik euskarak bizirik mantentzean ahi badugu. Oinarria haur eta gazteen errespetua izan behar du.

Horregatik, euskara oinarri duen eta ingurune soziolinguistikoa benetan kontutan hartzen duen eredu eleanitz bat sortzea izango litzateke egokiena. Hezkuntzaren erabilera politikoak alde batera utzi, eta ikerketen emaitzak objektiboki aztertu behar dira. Ikasle osatuak eta prestatuak sortu behar dira.

Datozen urteetan martxan jarraituko duela dirudien Hezkuntza Marko Hirueledunak kontutan hartu behar du benetan zer nahi duen, errealitatea begiratu, emaitzak aztertu eta helburuak ondo finkatu ondoren, horri egokitutako benetako Marko eleanitz bat sortu beharko du. Hala eta guztiz ere, emaitzak jasotzen hastean ikusiko da benetan marko honek aipatzen dituen helburuak betetzen dituenentz.

6. BIBLIOGRAFIA

ISEI-IVEI, (2010), *Ebaluazio Diagnostikoa 2010. Lehen Hezkuntzako 4. Maila. Emaitzak eta aldagaien analisia*. Eusko Jaurlaritza.

ISEI-IVEI, (2010), *Ebaluazio Diagnostikoa 2010. DBHko 2.maila. Emaitzak eta aldagaien analisia*. Eusko Jaurlaritza.

Zalbide, M. eta S. Izagirre (2011), *Hezkuntza-alorreko hizkuntza plangintza*. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Ikastaroa.

Zubeldia, L. (2010), *Hezkuntza eredu hirueleduna. Euskara gelako baztertua?* Galtzaundi aldizkaria, 322. alea.

Sareko bibliografia

BERRIA EGUNKARIA

www.berria.info

http://paperekoa.berria.info/harian/2010-03-04/002/014/jaurlaritzak_hiru_eleko_hezkuntza_eredua_40_zentrotan_probatuko_du.htm

http://paperekoa.berria.info/iritzia/2010-03-11/004/006/euskara_marko_hirueledunean.htm

http://paperekoa.berria.info/harian/2011-05-31/012/002/zelaak_ohartarazi_du_hiru_eleko_ereduak_ez_duela_atzera_bueltarik.htm

DIARIO VASCO EGUNKARIA

<http://www.diariovasco.com/v/20100314/al-dia-sociedad/marco-trilingue-debe-flexible-20100314.html>

EUSKALDUNAK ETA ELEANIZTUNAK BLOGA

<http://euskaldunaketaeleaniztunak.wordpress.com/>

EUSKO JAURLARITZA

http://www.langile.com/fitxategiak/dokumentuak/doks/marko-hirueleduna_3_3_10_e.pdf

EITB-KO ALBISTEAK

<http://www.eitb.com/albisteak/gizartea/osoa/640956/esperientzia-hirueledunak-aurreikuspen-guztiak-gainditu-ditu/>

HIK HASI ALDIZKARIA

<http://www.hikhasi.com/artikulu/1012> : Erriondo, Lore; Isasi, Xabier; Azurmendi, Mari-Jose; Mendiguren Bereziartu, Xabier (2005); *Hizkuntza ereduen porrota frogatuta*. Hik Hasi aldizkaria, 99. alea.

<http://www.hikhasi.com/artikulu/493>: Etxeberria, F. (1999), *Elebitasuna eta hizkuntza euskararen herrian*. Hik Hasi aldizkaria, 43. alea.

<http://www.hikhasi.com/artikulu/439>: Oregi, Sabin. (1999), *Alfabetatzea Euskal Herrian (1.500-1.994)*. Hik Hasi aldizkaria, 38. alea.

<http://www.hikhasi.com/artikulu/1383> : - (2006), *Hizkuntzen marko berria EAE-n*. Hik Hasi aldizkaria, 117. alea.

ISEI-IVEI

<http://www.isei-ivei.net/eusk/isei/indexisei.htm>